

KARKARA

JONE URANGA

PLASTIKOAREN ALTERNATIBAK BILATZEN





UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.

Harremanetarako:

ukt@ukt.eus
943-81 38 41
943-89 00 17



*Asteartetik ostiralera,
egunkaria:*

Urola Kostako HITZA

Hilero, aldizharria:

Maxizatzen
Uztarría
Baleike
Karkara



Une oro:

maxizatzen.eus
uztarría.eus
urolakosta.hitza.eus
baleike.eus
karkara.eus
erlotelebista.eus
zarauzkohitza.eus



Egunero:

Erlo telebista

Astero:

bideoak gure
webguneetan

+sare sozialak



Komunikazio zerbitzuak:

- Marka nortasuna
- Komunikazio estrategia eta plangintza
- Irudia eta diseinua: bideoak, papertegia, argazkigintza...
- Web orriak, blogak eta sare sozialak
- Tablet/smartphone aplikazioak
- Harreman publikoak: ekitaldien antolaketa
- Itzulpenak eta zuzenketak
- ...

M-8

KARKARAK
bat egiten du
Martxoaren 8ko
aldarrikapen
feministekin

Jarraitu ekitaldiak
karkara.eus webgunean



KARKARA 414

2020-OTSAILAK 28A

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARITZ MUTIOZABAL

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 5 | Iritzia Aiora Larrañaga Solaberrieta
<i>Ez du beste inork egingo</i> | 30 | Erreportajea Aiora Larrañaga Solaberrieta
<i>Emakumeok geure artean noka</i> |
| 6 | Hitz tantak Aritz Mutiozabal
<i>Julen Alonso</i> | 34 | Akuilua hartuta Mirari Azpiroz eta Naomi Mendizabal
<i>Aiatik Bujagalira eta Bujagalitik Aiara</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Iker Gozategi
<i>Sentimendu kontraerriak</i> | 35 | Nire honetan Intza Unanue Arruabarrena
<i>Amaieraren hasiera</i> |
| 10 | Gutunak | 37 | Euskara Rikardo Uzkudun
<i>Gu gurera</i> |
| 12 | Herrian galdezka | 38 | Osasuna Goreti Aranburu
<i>Gripe garaia</i> |
| 14 | Oroimenaren kutxa Iñaki Iturain
<i>Milagro Ariztimuño, emakume ekintzaile eta errebeldea</i> | 39 | Ikasleak idazle Zingira Eskola |
| 18 | Elkarrizketa Onintza Lete Arrieta
<i>Jone Uranga: Nire apurtxoa jarri nahi nuke munduan gauzak hobetzeko</i> | 40 | Albiste laburrak |
| 24 | Irudietan | 42 | Plazan bazan |
| 26 | Bazkide kluba | 44 | Agenda |
| 29 | Moila bazterretik Xabier Etxeberria
<i>Oraingoz dena ondo</i> | 45 | Zerbitzuak |
| | | 46 | Hasi bertsotan Juan Antonio Erkizia |

KARKARA



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.

Soreasu z/g. 20730

AZPEITIA

943-86 15 45

karkara@karkara.eus

www.karkara.eus

Lehendakaria

Rikardo Uzkudun

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga
Solaberrieta

Erredaktore taldea

Onintza Aiestaran

Onintza Lete Arrieta

Elizabete Manterola

Aritz Mutiozabal

Iñigo Galton

Rikardo Uzkudun

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Publizitatea

Leire Martija

Ale honetako

kolaboratzaileak

Iñaki Iturain

Xabier Etxeberria

Mirari Azpiroz

Naomi Mendizabal

Intza Unanue Arruabarrena
Goreti Aranburu

Banatzaileak

Endika Ruiz (Orio)

Manex Dorronsoro (Orio)

Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-346/90

ISSN: 1132-1105

Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA



AIAKO
udala

PUBLIZITATEA



Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

22, 26, 28, 49, 55 eta 60 eserleku dituzten literadun autobusak ditugu.

Ubegun industria gunea, 4 AIA-ORIO

943-13 28 93 · 656 78 29 99 (Gabino)
Fax-a: 943-89 05 62
alustiza@autocaresalustiza.com



Olaskoegia z/g
AIA-ORIO
943-13 04 38

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
www.cristaleriaanorgatxiki.com
943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak



Aristerrazu Jatetxea

Andatza auzoa · AIA
943-83 45 21
www.aristerrazujaatetxea.com

edartegia **Antilla** jatetxea

Abeslari kalea, 2
ORIO
943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitaratekoak

arkaitz taberna
••• urio •••

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

Pelotari, 5 · ORIO
943-83 00 34
autolan13@hotmail.com



AUTO - LAN C. B.



fontana iturgintza
iturgintza · gasa · berogailuak

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dubxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO
fontana-jul@hotmail.es
www.fontaneria-fontana.com
943-53 98 88 · 661 26 28 28

BODEGAS *Gailur*

©1307 BANCOS de EBRO
Tel./Fax: 943 20 91 58
www.bodegagailur.com
Arabar Errioxa

ZUDUGARAI



Galeria Txokolina
EDUKIAKON DA GARAIA

Tel.: 943-83 03 86 · Fax-a: 943-83 59 52
txakolizudugarai@euskalnet.net · www.txakolizudugarai.com

Carmen eta Txomin
ARRAINDEGIAK



TXOMIN ARRAINDEGIA
Eusko Gudarien kalea, 44
943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
Arizaga kalea
943-83 05 37

Ez du beste inork egingo



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Zergatik ospatu behar da Emakumeen Eguna? Ez da ba gizonen eguna ospatzen moduko komentarioak ohikoak izaten dira Martxoaren 8aren bueltan. Izan ere, gure gizartean gizonak eta emakumeak eskubide berak ditugula eta emakumeen eskubideen aldeko borroka gaindituta behar lukeela pentsatzen duten asko daude oraindik. Badira pertsonak, baita emakumeak ere, emakumeen borrokarekin edo feminismoarekin zerikusirik izan nahi ez dutenak. “Ni ez naiz feminista” esaten dute, eta ez dira ohartzen gaur egun ohikoak diren eskubide asko emakumeen borrokaren bultzadari esker lortu zirela. Emakumea matxismoa gainditu duen emakume moderno, independente eta profesional moduan agertzen dute, eta ez dute hitz egiten emakumeok emakume izateagatik jasaten ditugun zapalketa sistematikoez.

Feminismoaren benetako esanahia ezagutzen ez duen jendea ere badago, eta feminismoak prentsa txarra du zenbait sektoretan. Adibidez, ezagun bat haserre topatu nuen behin, bere alabari eskolan feminismoaz hitz egin ziotelako. Uste zuen irakaslearen kapritxoak izan zela gaia lantzea, ez baitzizaion buruan sartzen emakumeen borroka gaitegiko parte izan zitekeenik. Orduan ohartu nintzen herritar horrek matxismoa eta feminismoa parekidetzat hartzen zituela, hau da, uste zuen feminismoak eskatzen zuela emakumeak gizonen gainetik egotea. Beste batzuek feminismoa ideologia edo alderdi politiko jakin batzuekin ere lotzen dute, ulertu gabe emakumeen eskubideen borroka jatorri, erlijio, klase sozial edo aukera afektibo-sexualetik harago doala. Testuinguru horretan bakarrik da ulergarria emakume batek “Ni ez naiz feminista” esatea. Bestela, nola egon daiteke andre bat emakumeok gizonen eskubide eta aukera berberak izatearen aurka?

Ez dago zalantzarik, gizartearen hierarkian zapalduta dauden kolektiboak eta horien egoerarekin sentsibilizatuta daudenak ohartzen dira nagusiki sistemaren hutsegiteez. Hobetzeke asko dago oraindik gizartean, eta datorren Martxoaren 8an emakumeen eskubideen aldeko borroka indartzeko une aproposa izango da, emakumeok egiten ez badugu, ez du beste inork egingo eta. —

**BATZUEK FEMINISMOA
IDEOLOGIA EDO
ALDERDI POLITIKO
JAKIN BATZUEKIN
LOTZEN DUTE**



Julen Alonso

TESTUA ETA ARGAZKIA: ARITZ MUTIOZABAL

Julen Alonso musikariak *Sutan dantzan* ikuskizuna estreinatuko du martxoaren 28an, 22:30ean hasita, Aiako probalekuan. Iaz argiratu zuen estreinako diskoaren zuzeneko aurkezpena izango da nagusiki, eta proiektuaren garapenean Oinkari taldeko dantzariak izan ditu bidaide.

***Sutan dantzan* taula gainean ikusteko parada izango da azkenean.**

Iaz kaleratu nuen *Sutan dantzan* nire lehen diskoa, eta ikuskizuna lan horren zuzeneko aurkezpena izango da. Orain hasiko naiz kontzertuak ematen diskoan jasotako abestiekin, eta baita abesti berri batzuekin ere. Orain arte ez dut emanaldirik eman, eta Aiakoa izango da estreinakoa.

Diskoa zuzenera eramateko prestatzen aritu al zara?

Denbora honetan guztian pentsatzen aritu naiz nola eraman agertokira, zer formatutan egin, eta azkenean erabaki dut oholtza gainera igoko garela bost musikari eta Oinkari dantza taldeko zortzi dantzari.

Beraz, ez zenuen nolanhiko kontzertu bat eskaini nahi. Ikuskizun bat sortu nahi zenuen, alegia.

Hori da, bai. Dantza txertatu dut, *Sutan dantzan* izenburuarekin bat datorrelako, baina horretaz aparte, baita ni txikitatik dantzan aritu naizelako ere, dantza txapelketetan eta abar. Beraz, bi munduak ezagutu ditut, eta bizi izan ditut: dantza eta musika. Bien arteko lotura zuen zerbait sortu nahi izan du proiektua ontzerakoan.

Nola oinarrituko duzu uztarketa hori taula gainean?

Oinkarikoei proposatu nien abesti batzuetan bakarrik egitea dantza. Nik jada nire irudimenean ikusten nuen zein abestik behar zuen koreografia bat eta zuek ez. Beraz, ez da izango dantza ikuskizun bat bere osotasunean. Kontzertu emanaldi bat da, eta tartean dantza izango du, saioa oso laua gera ez dadin. Kanten artean ere denetarik eskainiko dugu; jendeak uste du trikitixa delako erritmo aldetik topera behar duela uneoro, baina ni saiatu naiz gorabeherak izan ditzan.

Badirudi abestiak konposatzen ari zinen unean taula gainean irudikatzen ari zinela.

Kantak sortzen joan ahala, pixka bat ikusten nuen taula gaina eta hori guztia. Edonola ere, ongi aztertu eta pentsatu behar den gauza bat da.

Jende askorekin ari naiz lanean, eta dena primeran ateratzeko gauzak argi eduki behar dira.

Oraindik hilabete geratzen da estreinaldirako. Zer moduz doaz entseguak?

Oso ongi! Gainera, lehenengo esperientzia dut hau nire abestiak talde batekin joz. Grabazio estudioan entzun nuen taldekide guztion uztarketa, baina ez da gauza bera denok batera elkarrekin entseatzekoan. Beste sentsazio batzuk daude, eta polita izango da, ziur.

Dantzariekin batu al zarete entsegu orokorrik egiteko?

Momentuz, zuzeneko musikarekin ari gara gu, eta dantzariekin batera azken hilabetean elkartuko gara, ikuskizunaren entsegu orokorrik egiteko. Beraiek ari dira beraien aldetik lantzen, eta gu gure aldetik. Oinkarikoek bidali dizkidate bideo batzuk nola prestatzen ari diren ikusteko, eta itxuratzen ari naiz ikuskizuna, baina zaila da oraindik jendeak irudikatzea. Horretarako Aiara etorri beharko dute ikustera.

Nolatan jo zenuen Oinkari taldearengana?

Dantzan ibili izan naiz urte askoan, eta asko bizi izan dut Oinkari. Beraien *Sagartu* ikuskizuna ikustera joan nintzen, eta guztiz liluratuta utzi ninduten. Hortik nire erabakia. Haiekin Iker Telleria musikaria zebilen, eta zuzenean harekin harremanetan jarri nintzen. Hala, bera hartu dut nire talderako, perkusioa jotzeko.

Eta zergatik aukeratu duzu Aian estreinatzea?

Kontzertuak bilatzen hasteko asmoa nuen, baina beraiek hartu zidaten aurrea: diskoarekin zer moduz nenbilen galdetu zidaten, eta pentsatu nuen proiektuari hasiera emateko aukera polita zela. Oriokoa naizen arren, sorkuntza eta entsegu ordu guztiak Aian pasatu ditut, bertan baitut txoko bat horretarako. Beraz, pozgarria da etxean hastea. Niri ilusio berezia egiten dit Aian hastea zuzeneko kontzertuekin. ■■■■



Sentimendu kontrajarriak

ARGAZKIA ETA TESTUA: IKER GOZATEGI

Argazki hau moda editorial baterako egin nuen. Maitasunaren aurpegi ezberdinak ziren inspirazio iturri proiektuan. Pieza honekin, zehazki, maitasunaren alde iluna edo garratza erakutsi nahi izan dut. Bi esku dira protagonistak, bi pertsona, bi sentimendu. Eskutik helduta daude baina, era berean, tentsioa nabari da. Elkarren artean dagoen lotura hori askatu nahia ikusten da. Asko transmititzen didan irudia da; izan ere, denok ezagutu dugu egoera hori noizbait harreman batean. Joan egin nahi, baina ezin. Buruak gauza bat esan, eta bihotzak beste bat. Sentimendu kontrajarriak pentsamenduei gailentzen zaizkienean. ■■■





Sahararen aldeko janari bilketan parte hartu dutenei eskertza

SAHARAREN ALDEKO ORIOKO TALDEA

Sahararen aldeko janari bilketaren antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete iniziatiba solidarioan parte hartu duten norbanakoei, familiei eta erakundeei: Orioko Herri Ikastolari, Zaragueta Herri Eskolari, Zingira Eskolari, Spar-i, Dia-ri eta Eroski Centerri.

Denera, 1.500 kilo inguru janari eta material bildu dira, 84 kaxa txiki eta 6 handitan.

Zorionak Orioko piano-jotzaile gazteei

DANBOLIN MUSIKA ESKOLAKO PIANO IRAKASLE AUDRA ALMANAITYTE

Otsailaren 8an, Orioko Danbolin Musika Eskolako 16 ikaslek Andoaingo XV. Piano Jaialdian parte hartu zuten, eta oso gustura nago txapelketan egin zuten lanarekin. Andoaingo Piano Jaialdira oso gustura joaten gara piano-jotzaileok. Izan ere, pianoa bakarkako musika tresna denez, ezin dugu edonon jo, eta piano-jotzaileontzat bilgune garrantzitsua izaten da Andoain.

Andoaingo Piano Jaialdiko antolatzaileek kategoria bakoitzeko errepertorioa zehazten dute urtero, adin tartearen arabera, eta ikasleek



Andoaingo Piano Jaialdian parte hartu zuten ikasleak. AUDRA ALMANAITYTE

beren adin tarteko edo adin tarte nagusiagoko obrak jo behar izaten dituzte.

Jaialdiaren aurretik, gaztetxoek oso ondo landu zituzten jendaurrean jo behar zituzten obrak, eta lan bikaina egin zuten aurtengo jaialdian. Nabarmendu nahi dut Orioko piano ikasleek talentu handia dutela; oso jatorrak dira, eta pianoa ikasteko gogoz daude. Gainera, normalean taldeko lanik egiten ez dugunez, bakarka entseatzen dute, eta Andoaingo jaialdiak talde izaera indartzeko balio izan digu.

NABARMENDU NAHI DUT ORIOKO PIANO IKASLEEK TALENTU HANDIA DUTELA

Zorionak denoi egin duzuen lanagatik!

Hurrengoak dira Orioko piano ikasleek Andoaingo Piano Jaialdian lortutako emaitzak:

Pianoa lau eskutara, A mailan

- Nora Ruiz Areizaga eta Arrate Igartua Visok zilarrezko domina
- Irati Txintxurreta Goikoetxea eta Julen Lekuona Camposek urrezko domina eta aipamen berezia.
- Paul Sarasua Ijurra eta Oier Iruetagoiena Iribarrek urrezko domina.

Pianoa lau eskutara, B mailan

- Martin eta Iñaki Daly Brazok urrezko domina eta aipamen berezia.
- Uxue Aginalde De la Cruz eta Maddi Etxeberria Ercillak urrezko domina eta aipamen berezia

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Pianoa lau eskutara, C mailan

- Anne eta Maddi Orzaiz Vegak urrezko domina.

Piano-bakarlaria, B mailan

- Itxaso Aierbe Cisnerosek zilarrezko domina.
- Ane Blazquez Barrahonek zilarrezko domina.
- Uxue Etxeberria Ercillak zilarrezko domina
- Sara Loidi Romerok urrezko domina .

"Camperrak" edo txakur jabeak, zein zikinago?

LIBANA TABOADA

Hondartzako bizilaguna naiz duela lau urtetik, eta iaz udaran txakurra ekarri genuen. Ordura arte ez nintzen belardietan asko ibiltzen, eta ikaragarria da horien egoera penagarria. Ez dut uste asko kostatzen denik bakoitzak bere txakurraren kaka jasotzea. Poltsak ere udalak ordaintzen ditu eta! Izan ditut istiluak bizilagunekin euren txakurren kaka jaso dezatela eskatzeagatik. "Hiru egunetan desagertzen da ta!", haietako batzuen argudioa.

Gainera, gauza batek bestea dakar: txakur kakak ikusteak

TXAKUR KAKAK IKUSTEAK JENDEA ANIMATZEN DU ZABORRA BERTAN UZTERA



Antilla hondartzako zelaia. AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

jendea animatzen du zaborra bertan uztera.

Eta zer esanik ez *furgonetero* eta autokarabanei dagokienez: haiek ere belardietan kaka egin eta ez dute jasotzen. Kartel bat jarriko nuke haientzat:

Ongietorri Camper, baina jaso zure kakak txakurrenak bezalaxe. Nazkagarria bada txakur kaka bat zapaltzea, imaginatu gizakiarena. Segituan igartzen da gainera.

Zergatik ez da komun publikoa jartzen hondartzan jendearentzat?

Mesedez, badakit hondartzan kanpotar asko ere ibiltzen dela, baina herritar guztiok gure apurra jarriz gero, ziur naiz hondartzagunea askoz ere egoera hobean mantendu eta denok gozatzeko moduan egotera irits daitekeela. Momentuan behintzat, ni ez naiz belardietan sartzen,

ezinezkoa baita bertan gustura egotea hiru pausotik behin kakak zapalduz bazoaz. ■■■■

JAIOBERRIAK

- **Naroa Eguzquiza del Hoyo.** Orion, urtarrilaren 25ean.
- **Ibai Lazkano Godoy.** Orion, otsailaren 3an.
- **Enara Gallego Gozategi.** Orion, otsailaren 15ean.

HILDAKOAK

- **Mertxe Azkue Azkue.** Orion, otsailaren 2an. 88 urte.
- **Jose Manuel Peña Manterola.** Orion, otsailaren 5ean. 82 urte.
- **Frantzisko Iburguren Arrillaga.** Aian, otsailaren 7an. 72 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, **guk egilea nor den jakinda.** Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orío

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA

GELATO

943-57 81 76
Herriko enparantzan

Izozki naturalak — Opilak

azkue
karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86

Lagundu plastikoak murrizten

1. Zuzenean otarrean sartu produktua
2. Behar baduzu, eskatu eta eraman etxera gure poltsa berrerabilgarriak
3. Hurrengoan, ebetik ekar ditzakezu poltsak

GOZATEGI

FRUTADENDA

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09

IGLESIAS SARRAILAGILEAK

24orduko zerbitzua

iglesiascerrajereros@yahoo.es
www.iglesiascerrajereros.com
Erribera kalea, 14 · ORIO
637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com

Joseba
AROTEGIA · CARPINTERIA

687 683 427
josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOAK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- AROZTEGIA OROKORREAN

ITZIAR
KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03

TRANSPORTES · FRIGORIFICOS

INDO

Garraio frigorifikoa Nazionala eta Nazioartekoa

generoa

garraloak

ibilbideak

kamarak

Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

URDAIRA
SAGARDOTEGIA

Urdaira baserria, Aginaga Auz. 63 · USURBIL
943-37 26 91
info@urdairasagardotegia.com
www.urdairasagardotegia.com

ZATOZ DASTATZERA!
Sagardotegi sasoi berria martxan da

* Berrikuntzak sagardotegian

Herriko plaza nola nahiago zenuke, kioskoarekin edo kioskorik gabe? Zer itxura hartzen diezu egiten ari diren lanei?



IBAN EGIGUREN

Ahaliko balitz, jarri eta kendu daitekeen kioskoa nahiko nuke plazarako, kar-kar-kar! Orain dagoen bezala asko gustatzen zait; kioskoa kendu zutenean, espazio zabala ireki zen inguruan, eta argitasun asko irabazi zen. Dena den, kioskoa jarri egingo nuke, herritarrei eta adineko lagunei eguraldi txarrarekin ere plazan egotea gustatzen zaielako. Lanei dagokionez, orain artean egindakoek itxura ona dute. Obra beharrezkoa iruditzen zait, besteak beste, hodiak eta azpiegiturak berritu beharra zegoelako. Peatonalizazioarekin, lasaitasuna irabaziko du inguruak, toki atseginagoa izango da oinezkoentzat eta terrazen erabiltzaileentzat. Gainera, bukatzen dutenean, herritik autoz ateratzeko ez dugu Txankako buelta egin beharko.



AMAIA LOIDI

Asko gustatzen zait orain kioskorik gabe duen espazio zabala, zeru irekiarekin; baina, neguko klima kontuan hartuta, uste dut estalpea beharrezkoa dela. Dena den, bozkatu beharko banu, horrela lagatzearen aldeko botoa emango nuke, kioskorik gabe. Lanak aprobetxatuz, plazan berdeguneak ere jarriko nituzke. Peatonalizazioari dagokionez, oso ona iruditzen zait herriarentzat, inguru horrek behar zuen halako zerbait. Aurrerantzean ez dugu autoarekin Txankatik barrena ibili beharko asteburuetan. Uste dut oriotar guztiok irabaziko dugula plaza berriarekin. Tabernetako terrazetan giro gehiago sortuko da, eta plazak bizia irabaziko du. Luxua da plazak duen kokapena, moilaren ondoan, erria bistan dela, eta aurrerantzean, gehiago gozatuko dugu.



GORKA PUERTAS

Kioskorik gabe oso polita geratuko litzateke, baina aterpea ere behar izaten da... Estalpea izanda, eguraldi txarrarekin ere jendea juntatzen da plazan asteburuetan. Lanek itxura polita dute, baina oraindik ikusi egin behar da obrak nola borobiltzen dituzten. Peatonalizazioak bi onura nagusi ekarriko ditu: batetik, giro bikaina sortuko da herri erdigunean, Herriko Plaza eta Endaia Plaza juntatuko dituelako antolaketa berriak. Bestetik, astegunetan ere jendeak gehiago joko du herriaren alde horretara.

Gainera iruditzen zait, irisgarritasun aldetik ere herriari onurak ekarriko dizkiola: plaza ingurua espaloi edo koskarik gabe uzten badute, haur-kotxe, makulu eta halakoekin dabiltzanak erosoago ibiliko dira. ■■■

Milagro Ariztimuño, emakume ekintzaile eta errebeldea



IÑAKI ITURAIN iturain@gmail.com

ARGAZKIAK: UTZITAKOAK

Martxoaren 8an Emakume Langilearen Eguna ospatuko da. Egunaren hurbiltasunak aukera ederra eskaintzen digu Milagro Ariztimuñoaren bizitzaren testigantza azaltzeko, Orioko historian tokia irabazi duen emakumearena. 2016ko abuztuaren 26an elkarrizketatu egin genuen Orioko mediku Goretti Aranburuk eta biok. Milagrorekin elkartuta, tertulia eder eta luzea gozatu genuen, patxadan, presarik gabe, Gelatoko terrazan. Milagro, orduan, 91 urteko emakume gazte, jakintsu eta errebeldea zen. Solasaldian bere bizialdi oparo eta harrigarria erakutsi zigun.

Gurekin egon zen egunaren biharamunean Oriotik Madrilera joan zen, handik Estatu Batuetara bidaiatzeko, han bizi den alaba Miren Kororekin denboralditxo bat pasatzera. Milagro urtero etortzen zen uda garaian oporretan Oriora, orain hiru urte arte. Gurekin egondako huraxe izan zuen Milagrok azken egonaldia Orion. Geroztik ez da itzuli, haren ibilaldi luzeak amaiera izan zuen.

Milagro Euskal Herrian jaio zen 1925ean, nahiz eta orduan familia Madrilen bizi zen. Gurasoak Madriletik etorri

ziren, alaba hemen jaio zedin. Haurtzaroa Madrilen igaro zuen. Bertan sufritu zuen 1936ko gerra. 1937ko azaroaren 1ean, Francoren hegazkinen bonbardaketa baten ondoren, etxetik eskonbro artean atera zen. Gerra ondoreneko urteetan, aita bibliotekari lanetan zebilen Madrilen. Alabak ere bibliotekonomia ikasi nahi zuen eta Venezuelara joan zen horretara, Espainiako giro itogarritik ihesi.

Pasadizo koloretsua kontatu zigun, orduko giroa ondo erakusten duena. 1950eko urteetan, hemengo emakumeek galtzarik erabiltzen ez zutenean gaizki ikusia zegoelako, Milagro, oporretan etorrira, galtza berdeak eta eskuz egindako zapata horiak jantzita ibiltzen zen pasieran Donostiako Abenidan. Askok begiratu egiten zioten, eta emakumeek gelditu, zapatak non erosi zituen galdetzeko.

El tigre de Orioren semearekin ezkondu

Venezuelan, ikasten ari zela, gazte oriotar bat ezagutu zuen,

ONGI ETORRI: 500 METRORA IKUSTEN ZEN SALSAMENDIREN MADRILEKO GASOLINDEGIKO KARTELA

Joakin Salsamendi Gonzalez Txabarri. Harekin ezkondu zen. Joakin pilotari ezagun baten semea zen, 'El tigre de Orio' izendatzen zuten Ramon Salsamendirena. Aita Ramon erremontista izan zen Madrilgo Recoletos frontoian; eta jokoan erakusten zuen indarra eta azkartasunagatik irabazi zuen tigrearen goitizena. 1921eko urtea Habanako (Kuba) Jai Alai frontoian jokatzeko eman zuen.

Frankismo beteko garai hartan euskaldun asko bizi zen Venezuelan. Batzuk, hara aspaldi joandako euskaldunen ondorengoak; besteak, 1936ko gerragatik erbesteratu berriak. Jose Antonio Agirre Lehendakariaren koinatu Aita Zabala apaizak ezkondu zituen Milagro eta Joakin, 1954an, Caracaseko euskal zentroan. Biek egiten zuten lan Venezuelan: Milagrok, osasun arloko datuak jasotzen, bulego batean; eta Joakinek, berriz, albaitari, Venezuelako gobernuko Nekazaritza ministerioarentzat, Erdialdeko Amerika osoan.

Joakinek eta Milagrok betebetan bizi izan zuten Venezuelako euskal abertzaletasuna. Milagrok osaba zuen Joxe Ariztimuño Aitzol apaiza, 1936ko urrian Hernanin fusilatu zuten euskaltzale bertso gai-jartzailea. Martin Ugalde EAJko abertzale eta idazle ezaguna izan zuen



Jose Antonio Agirre lehendakaria, Caracaseko euskal etxeko elizkizun batean.


euskara-irakasle. Eta adiskide izan zituen Leizaola lehendakaria, Manuel Irujo, Iñaki Anasagasti... Garai hartan zabaldu zuten Caracasen euskal zentroa, inaugurazioan Agirre lehendakaria bertan zela. Han elkartzen ziren inguruko euskaldunak. Bi milatik gora bazkide zituen, frontoi handia, jatetxea, euskara ikasteko eskolak, dantza taldea, abesbatza...

Irratia ere sortu zuten Venezuelako euskaldunek, Euzkadi Irratia-Radio Euzkadi. 'Euzko Abendaren Ereserkia'-ren aurreneko noten ondotik, honela aurkezten zuen bere burua irratia: «Hemen Euzkadi Irratia, euzko erresistentziako gudarien deia». Ingelesezko, frantsesezko eta gaztelaniazkoa

zetozen ondoren: «Aquí Radio Euzkadi, la voz de la resistencia vasca'. 'Euskal emisora klandestinoa'k bi garai izan zituen: bata Euskal Herriko Iparraldean (1946-1954), eta bestea Venezuelan (1965-1977).

Milagrok zioenez, orduko Venezuela herrialde oso aurreratua zen, ekonomia, bizimodua eta legeen aldetik. Espainian ez bezala, dibortzioa legala zelako onartu zuen Milagrok ezkontzea. Ezkondu eta hiru urtera, 1956ko abenduan, Oriora etorri zen, salsamenditarren etxera, alaba Euskal Herrian jaio zedin, bere gurasoek berarekin egin zuten bezala.

Oriora bidean, Madrilera hegazkinaz etorrita, berehala konturatu zen Milagro zer zen



Ramon Salsamendi *Tigre de orio.*

orduko Espainia: aireportura bila joan zitzaion amari `amatxo´ deika hasi eta polizia bat gerturatu zitzaion berehala, *“aquí se habla en español”*



Aitzol Ariztimuño bertso saio bat aurkezten.



Joxe Mari Salsamendi eta Joanito Iturain erreumontistak.

esanez. Gero, Venezuelako pasaporteak kendu egin zioten, eta gehiago entregatu ez. Amerikara itzultzeko, Venezuelako enbaxadan eskuratu behar izan zuten pasaporte diplomatikoa.

Liskarra Orioko apaizarekin

Haurra Orion jaiota, bitxikeria xelebrea izan zuten ama izan berriak: Orioko elizara joan haurra erregistratzera, Jose Maria Astigarraga apaizari haurra Miren Koro izango zela

esan, eta apaizak ezetz, Maria del Coro behar zuela. Ama Donostiako erregistro zibilera joan zen, han lortu zuten Venezuelako pasaportean izena euskaraz jartzea.

1983an itzuli zen Milagro betiko Venezuelako erbestetik. Franco hil eta gero, bere bibliotekari lana errekupeatzeko modua zuela jakinda, 48 ordu behar izan zituen Venezuelatik bueltatzeko. Francoren garaiko 'Excedencia forzosa por matrimonio' legerari aurre egin zion, errekurtoa jarri eta irabazi egin zuten. Orduan berreskuratu zuten, epaiketa bidez, Espainiako Nekazaritza ministroaren liburutegiko liburuzain ardurak, ezkondu zenean eta ezkondu zelako galdu zuena; 1946ko legeak hala agintzen baitzuen: emakume ezkonduak ezin zuela lanean segitu etxetik kanpo. 1983an berriro lanean hasita, 1992an jubilatua zen, Joakin senarra Venezuelatik etorri zenean.

Orduan hasi ziren Salsamendi-Ariztimuño senar-emazteak, beren alabarekin, urtero udan Oriora etortzen. Alberto Olidenek ongietorria ematen zien DVko

herriko kronikan urtero. Nostalgia handiz gogoratzen zuten Milagrok garai hartako Orio: herrian hiru diskoteka, bi zine, plazan musika, herriko musika-banda, udan Salsamendi eta Toki Alai ostatuak beteta, baporeak moilan arraina lehorreratzeko, fabrika eta tailer asko... Bizitasun handia zegoen herrian. Pentsa, Francoren andrea Oriora etortzen zenean mueble bila: Arin y Embil-enera joaten zen. Nahi zituen altzariak hartu eta faktura El Pardora bidaltzeko esanda alde egiten zuten. Garai hartan, inor ez zen ausartzen Francori faktura bidaltzen. Debalde eramaten zituen, Donostiako bitxi-dendetatik koilareak bezala.

Joakin Salsamendi Madrilen hil zen 1996ko apirilaren 26an, Gernika bonbardatu zuten egunaren 61. urteurren egunean. Orioko kanposantuan dago hilobiratua, andreak haren nahia beteta. 2018an jakin genuen Milagroren bizitza gorabeheratsuak, Orio, Madril, Venezuela eta Estatu Batuetan barrena bizi izan zuenak, bukaera izan zuela. "Emakume alai, errebelde eta distiratsua zen Milagro, urtero Oriora etortzen zenean, herriari kolorea eta aire freskoa ekartzen zion", horrelaxe gogoratzen du emakume hura Orion mediku izan zuten Gorette Aranburuk. ■

Izaskun Estankoa
 Tabakoa · Prentsa · Eskola materiala
 Opariak

Astelehendik ostiralera
 8:00-13:00 · 17:00-20:00
 Larunbatetan eta igandetan
 8:00-13:30

Eusko Gudari, 23 · 20810 Orio · 943-83 12 12

URANGA
 burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

Kolon Txiki
 edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
 ORIO
 Tel.: 943-83 00 44

Katu Horia
 albaitaritza klinika

ESTROPALAZI, 10
 20810 ORIO
 tel. 943 11 66 99

LOTTIAGORRI
 668891129

kutixi
 kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17

IZARRA ELEKTROGAILUAK

Sukaldeak neurrira egiten ditugu

Eusko Gudari, 44 · 20810 Orio (Gipuzkoa)
 943-83 38 81
 izarraelectrodomesticos@gmail.com

Lizaso Dekoratiboa

Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
 itzilizaso@gmail.com

KORTABERRI
 arotz lanak

Imanol Illarramendi
 Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.erotza@hotmail.com

665 70 33 47

MARIDO
 ILEPAINDEGIA

Eusko Gudari, 8 behea · ORIO
 943-13 47 29

bai
 BEHARREN

Beilatokia
 Lekualdatzeak
 Eginbide guztien tramitazioa

Zarautz
 24 ordu
 zure zerbitzura

Araba kalea, 35
 ZARAUTZ
 943-89 49 37
 info@zarautzhiletazerbitzuak.eus

“Nire apurtxoa jarri nahi nuke munduan gauzak hobetzeko”

JONE URANGA IKERLARIA

Egunez egun hondakinen arazoa larritzen ari da mundu zabalean nahiz gure herrietan. Plastikoa gure bizitzetako txoko guztietan aspaldi sartu da; bereziki, elikagaiak biltzeko erabiltzen da. Horren alternatiba bila, ikerketa asko ari dira egiten herrialdeak, eta proiektu horietako batean dabil buru-belarri Jone Uranga (Orio, 1992) ingeniari kimikoa, EHUko Biomat programaren barruan.

Testua: **Onintza Lete Arrieta**. Argazkiak: **Aritz Mutiozabal**.

Arrain hondakinak hartu, eta hainbat material sortu dute, batez ere elikagaiak biltzeko balio duena. “Plastiko gehien elikagaien ontziratzean erabiltzen da. Beraz, gure materialak elikagaien ontziratze horretara bidera daitezke. Horrez gain, baditugu Biomedikuntza arloan erabiltzeko aproposak diren materialak ere”.

Zer lortu duzue, zehazki, arrain hondakinekin?

Arrain-gelatina erabilia, propietate ezberdinetako materialak prestatu ditugu, eta horietako batzuek sukaldako film transparentearen itxura dute; baina ez guztiek. Arrain gelatina arrainen hezur, azal, ezkata eta tendoietan aurkitzen den kolagenotik eratortzen da. Izan ere, hondakin horiek hainbat prozesuren bidez tratatzen badira, gelatina lor dezakegu. Guk laborategian erabiltzen duguna eta merkatuan dauden gelatinak gauza bera dira. Hori bai, merkatuan behi edo txerri gelatina aurkitzen da batez ere.

Zergatik aukeratu zenuten arraina?

Txerriarenarekin edo behiarenarekin ere egin daiteke, baina guk arrainarena aukeratu genuen, uste dugulako hain zuzen beste bi horiek gehiago erabiltzen direla, eta baita arrain hondakin horiei

balioa emateko eta zerbaitetarako erabili ahal izateko ere. Helburua da industriako hondakinei balioa eman eta horrela material berriak sortzea. Material berri horiek sortzeko hainbat prozesu erabili ditugu, eta arrain gelatina izan da oinarria. Beste substantzia batzuk ere erabili ditugu, materialaren propietateak hobetzeko.


Zientzian, ikerkuntzan, emaitzak ez dira berehalakoak izaten. Zuek lortu duzue helburua.

Bai. Industria mailan, esaterako, konpresio bidezko moldaketa asko erabiltzen da, eta guk lortu dugu material bat lortzea arrain gelatinarekin prozesatze mota hori erabilia. Gure nahia lortu dugu: laboratoriaoan material horiek sortzea. Orain gelditzen da industriara bideratzea. Hori da konplikatuena, horretarako enpresetan interesa piztu behar baita horrelako materialekin lan egiteko. Oraindik posibilitate asko daude, gainera: adibidez, beste hondakin batzuk erabiltzea.

Merkatura begira, zer aukera ikusten dituzu?

Plastiko gehien elikagaien ontziratzean erabiltzen da. Beraz, gure materialak horretara bidera daitezke. Biomedikuntza arloan erabiltzeko aproposak diren materialak ere baditugu.

Adibide zehatzik?



Jone Uranga materialen analisia egiten.

Esaterako, gazta biltzeko erabili dugu geuk prestatutako material bat, eta gero plastiko normalarekin egin genuen alderaketa, ikusteko egoera onean zenbat denbora irauten zuten. Taldekide batzuek arraina ere bildu zuten geuk prestatutako materialarekin, eta parametro batzuk analizatu zituzten, ikusteko ondo mantentzen zela bildutako genero hori. Esan bezala, elikagaiak biltzeko balio du.

Eta biomedikuntzan, zertarako balio dezake zuen ikerketak?


Apositu bezala, zauri bat azkarrago sendatzeko balio dezake. Film batzuk sortu genituen, ondoren giza azalean azterketa batzuk egin genituen, eta emaitza arrakastatsuak lortu ziren. *Drug delivery* (farmakoen askapena) deiturikorako ere erabil daiteke. Hau da, medikamentuak bildu ahal izateko, eta hortaz, gure materialean bertan joango litzateke farmakoa kapsulatuta. **Donostiako Ingeniaritza Eskolan egin duzue ikerketa.**


Unibertsitateak zer tresna ditu

zuek lortutakoa aplikatzeko, hau da, zuen produktua merkaturatzeko?


Guk ezingo genuke errentagarritasun ekonomikorik lortu gure materialekin, eta patenteren bat sortzekotan, Unibertsitateak izango luke patente horren eskumena. Proiektu bidez, hori bai, kolaborazio batean lan egin ahalko genuke enprekin produkturen bat merkaturatzeko.

Material bat baino gehiago lortu duzue. Zertan dira desberdinak material horiek?





Jonek laborategian prestatutako arrain-gelatinan oinarritutako scaffold bat. (scaffold beharrean material jar daiteke nahi izanez gero, baina mota horretako materialei horrela deitu ohi diegu)



Propietate mekanikoak aztertzeke prestaketan.



Film baten ur lurrunaren iragazkortasuna aztertzeke ontziaren muntaia.

Aplikazio bakoitzak propietate zehatzak eskatzen ditu, eta eskakizun horietara zuzendu behar da gure materiala. Azken batean, letxuga biltzeko edo gazta biltzeko behar diren propietateak desberdinak dira, gazta oliotsua delako, letxugak ur gehiago duelako... Beraz, parametro desberdinak kontuan hartu behar dira. Azken batean, plastikoez hitz egiten dugunean ere, orokorrean hitz egiten dugu, baina hainbat plastiko mota dago, batzuk gogorrakoak, beste batzuk film transparentea bezalakoak... Denetan erabili dugu oinarri bezala arrain gelatina, baina gehigarri zehatzak konbinatuta saiatu gara propietate bat edo beste lortzen.

Zenbat denbora eskatzen du material bat sortzeak?


Prozesuaren arabera denbora behar izaten da, batzuetan minutuak baino ez eta besteetan pare bat egun inguru. Baina prozesu guztiak-materiala zerekin eta zer prozesu erabiliz egin nahi dugun pentsatzea, sortzea eta karakterizatzea eta lortuta emaitzak interpretatzea- gutxienez hiru hilabete behar dituela esango nuke, orokorrean. Gainera, analizatu behar denaren arabera, gehiago ere luza daiteke.

Propietate bakoitza aztertzeke ekipo zehatzak dituzue.

Bai, denetarik dugu. Propietate mekanikoak aztertzeke daukagu makina bat materiala estiraten duena. Hala, ikus dezakegu zenbat indar jasaten duen, noiz puskatuko litzatekeen, zenbat luzatzen den. Ukipen angelua ere aztertzen dugu, hau da, materialari ur tanta botatzen diogu, eta software batekin angelua kalkulatu dugu. Bestetik, iragazkortasuna aztertzeke, ekipo baten barruan sartzen dugu materiala eta ur baporea pasatzen da bertatik; sistemak aztertzen du zenbateko iragazkortasun koefizientea duen. Ultramore izpiekiko hesia ere aztertzen dugu, ikusteko ea xurgatzen dituen ala ez. Propietate fisiko eta kimikoak infragorri izpien bidez aztertzen dira. X izpiekin, berriz, aztertzen da zati amorforik edo kristalinorik badagoen gure materialetan. Tenperatura aldetik, ikusten dugu zenbat jasaten duen gure materialak, etab.

Elikagaiekin lotuta daudenez zuen materialak, segurtasunari dagokionez ere pasa beharko dituzte test zorrotzak, ezta?

Guk ez dugu egin, gure laborategian ez daukagulako horretarako aukerarik. Aztertu beharko litzateke gure materialetik zer substantzia eta zer kantitatetan askatzen diren eta ea onargarria den askatzen den hori. Guk substantzia naturalak erabiltzen ditugu (bestek



Jone Uranga eta bere lankide bat 3D inprimagailuarekin (eskuinean) lanean. (irudian agian ematen du ezkerreko ekipoarekin ari garela lanean baina eskuinekoa da 3D inprimagailua, horregatik zehaztu nuke eskuinean).

beste gelatina, azido zitrikoa, eta glizerola) eta horiek guztiak onartuta daude elikadura munduan. Onartuta dauden substantziak erabiltzen badituzu, berez ez luke arazorik eman behar horien askatzeak, baina merkaturatu aurretik ondo aztertu beharko litzateke hala eta guztiz ere.

Ultramore izpiak ere aipatu dituzu. Zuen materialak xurgatzen al ditu?

Bai, xurgatzen ditu, eta beraz, ona da, esan nahi duelako gehiago iraungo duela elikagaiak.

Laborategiko lanetik zer duzu gustukoen?

Ikerketa munduan bitan bana genezake lana: batetik, laborategian egiten diren analisiak daude, eta bestetik, ordenagailukoa, hau da, datuen interpretazioa. Laborategian zure prozedurak egiten dituzu, materialak karakterizatzen dituzu, propietateak aztertzen dituzu eta ikusten duzu zuk sortu duzunak funtzionatzen duen ala ez... Nik laborategiko lana dut gustukoen, baina bestea ere behar- beharrezkoa da ikerketa lana aurrera joan dadin eta zure materialak hobeto ulertzeko. Bien arteko oreka bat edukitzea ez da gaizki etortzen, beti gauza bera egiten ez aritzeko.

Zure ustez, zer mailatan gaude Hego Euskal Herrian Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzan (I+G+B) erakunde publiko nahiz pribatuei dagokienez?

Nik uste dut ikerketa asko egiten dela Euskal Herrian. Parke teknologikoak daude Donostia, Bilbon eta Gasteizen. Hori bai, oso exigentea da mundu hau, curriculum oso-oso ona eduki behar da bertan lan egitea lortzeko. Ikertu nahi duen jende asko gaude, eta ez dago horrenbeste aukera. **Zer berrikuntza ikusten dituzu mundu mailan zuen arloan?**

Badaude material berriztagarri eta biodegradagarriak merkatuan, baina ezinezkoa da plastiko mota guztiak bat-batean material bakarrarekin ordezkatzeko. Gainera, gaur egun merkatuan dauden zenbait bioplastikok, esaterako Nespresso kapsula biodegradagarriak, oraindik badute propietateak hobetzeko beharra nire ustez. Hala ere, gure helburua ez da material bakar batekin plastikoa ordezkatzeko, baizik ekarpen txikiekin, pixkanaka-pixkanaka, ez biodegradagarria eta ez berriztagarria den plastikoa baztertzea. Batik bat erabilera bakarreko edo epe-laburreko plastikoa ordezkatzeko litzateke helburua, izan ere, horietan dira zabor kantitate handiak sortzearen iturri nagusia. Pixkanaka joan behar dugu plastiko horien erabilera murrizten, aplikazio zehatzetarako material berri lehiakorrek ditugunean aplikazio horretarako erabiltzen den



GOGOAN IZAN *abiato* 2.0 BERRIAK ESKAINTZEN DIZUN GUZTIA!

BIDEGIk teleordainketa-gailuaren berria den bertsio hobetu bat atera du gipuzkoar guztientzat.

Prestazio berriak, erabilera-eremu handiagoa, deskontu-sistema bera...

Abiata gailuaren erabiltzailea izan ala ez, dagoeneko abiato.bidegi.eus-en eska dezakezu gailu berria.

Eskatu!



Informazio gehiago: info@bidegi.eus | 943 105 106
GI-20 - KP / PK 14,800 - Aritzeta-Usurbil

plastikoa baztertuz, nolabait esatearren. Eta material horiek hondakinetatik etortzen badira, hobe. Izan ere, badago hondakinen arazoa ere. **Posible izango da hamarkada batzuetan iraultzea egungo egoera plastikoari eta hondakinei dagokionez?**

Nik uste dut ari dela horren inguruan ikertzen. Gakoa prezioetan dago, polietileno bat edo polipropileno bat askoz merkeagoa delako gelatina baino. Gelatina hamar aldiz garestiagoa da kiloko. Horrek ez du laguntzen industriaren kontzientziazioan – ingurumenarekiko lagunkoia diren materialak prestatzeko kontzientziazioan-. Beraz, ezin da erabateko konpetentzia egin horretan. Baina pixkanaka ari dira merkatuan sartzen bestelako materialak, eta egoera aldatu ahalko litzateke. Tira, nire nahia hori da behintzat.

Ingurumenaren arloa asko interesatzen zaizu. Badaude, ingeniari bezala, lorpen nagusizat ikusten dituzun aurrerapenak arlo horretan?

Zaila da zerrenda bat egitea. Askotan iruditzen zaigu ingurumen aldetik hobe dela, baina prozesu osoa aztertu behar da. Esaterako, kotxe elektrikoari dagokionez, badirudi gasolinarik edo gasoleorik erabiltzen ez duelako eta ez dagoelako konbustio hori, ingurumenarekiko lagunkoia dela, baina aztertu behar da kotxera datorren energia elektriko hori nondik datorren, eta ordura arte ezin da esan onuragarriagoa den ala ez. Anlisi sakona egin behar da hobekuntza bakoitzaren aurrean. Anlisi horri bizi-zikloaren ingurumen-analisia

deitzen diogu, eta geuk ere egiten dugu laborategian: gure materiala aztertzen dugu, hasiera-hasieratik hasita, sortzen dugunetik, amaierara arte, erabilera eduki eta gero, ikusteko ingurumenean inpaktu positiboa ala negatiboa edukiko lukeen.

Zer materialekin egin duzue azterketa hori, esaterako?

Kitina lortu genuen txibi lumetatik, eta aztertu genuen erauzketa prozesu horrek beste prozesu

batzuekin alderatuta ingurumen inpaktu txikiagoa edo handiagoa zuen. Azterketa horretan ikusi genuen beste prozesu batzuekin alderatuz gure prozesua ingurumenarekiko lagunkoiagoa zela. Behin jakinda kitina honen erauzketa prozesua ingurumenarekiko lagunkoia zela, egokia iruditu zitzaigun arrain-gelatinazko oinarria zuen material bati gehitzea; hain zuzen, propietate mekanikoak hobetzeko.

Epe laburrera begira, zein dira zure asmoak?

Inflexio puntu batean aurkitzen naiz. Pentsatu beharra daukat, doktoretza amaitu dudanez, postdoktoretza eskatu, ikerketa munduan jarraitzeko, edo bestela, enpresa munduan zerbait bilatu beharko nuke. Zer egin pentsatzen ari naiz, ikerketa mundua ez delako erraza. Bekaz beka ibiltzen zara eta ez dakizu epe luzera zer edukiko duzun. Polita da, eta asko ikasten da, baina beti horrela ibili beharra ere gogorra da. Irakaskuntzan ere egin ahalko nuke zerbait, ez dut biderik itxita uzten.

Baina gustatuko litzaidake ikerketan jarraitzea. Enpresa batean ere, I+G+Bko atal batean lan egitea ondo egongo litzateke, edo gauza berriak ikastea. Azken batean, materialak interesgarriak dira, baina beste gauza batzuk ere badaude interesgarriak.

Adibidez?

Ingurumenaren aldeko gauzak egitea asko gustatzen zait, baina ez daukat ideia zehatzik zer nahiko nukeen. Dakidana da gustatuko litzaidakeela zerbait berria probatzea.

Ametsik baduzu?

Ez bereziki; nahiko nuke ingeniartzatza kimikoan lanean jarraitu eta nire apurtxo jarri ikertuz munduan gauzak hobetzeko.

MERKATUKO PLASTIKO MOTAK



URTEKO PLASTIKO EKOIZPENA: **320 MILIOI TONA**

2023 urterako bioplastikoen ekoizpen globala % 25 igotzea estimatzen da



% 1 BIOPLASTIKOAK (bio-oinarritutakoak edota biodegradagarriak)

Plastiko konbentzionalaz zenbait datu:

- Merkea, eraldatzeko erraza eta erabilera anizkoitzekoa da plastikoa. Iraunkorra ere bada, bere erresistentzia mekaniko eta kimikoarengatik.
- Mundu mailako ekoizpenak nabarmen gora egin du azken 54 urteetan: 1964. urtean, 15 milioi tona plastiko sortu ziren eta 2018. urtean, berriz, 359 milioi tona. Europan, plastikoen eskaria 61,8 milioi tonakoa izan zen.
- Plastikoa gehienbat ontziratze aplikazioetarako erabiltzen da.
- 2018. urtean ekoiztutako plastiko produktuetatik sortutako zaborraren erdia baino gutxiago bildu zen. Bildutako zaborraren % 42,6 erregai gisa erabili zen; % 24,9 zabortegietara bideratu zen; eta % 32,5 birziklatu egin zen. Gainontzekoa ingurumenean geratu zen.
- Plastikoa ingurumenean:
 - Kalifornia eta Hawaii artean Ozeano Barean dagoen plastikozko uhartea, Euskal Herria baino 76 aldiz handiagoa da
 - Horrela jarraituz gero, 2050 urterako ozeanoetan arrain baino plastiko gehiago egongo da. ■■■■

ITURRIAK: PLASTICS-THE FACTS 2019 ETA ELHUYAR.

Inauteriak eta arrauna ezin hobeto uztartu dira Orion

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Otsailaren 22an kolorez jantzi zen Orio, Inauterietako mozorroek eta Oriaren Jaitsieran parte hartu zuten arraun taldeetako zaleek girotu baitzuten herria. Elizako kanpaiek 12:00ak jo zituztenean abiatu zen Inauterietako desfilea; mozorrotutako kuadrillek herrigunea zeharkatu zuten txarangaren doinuez lagunduta, eta geldialdia egin zuten Ibai Ondo plazan; bertan Jexux Makazagak eta konpainiak prestatutako marmitako ederra jateko parada izan zuten, gainera.

Arratsaldean jokatu zen Oriaren XXVI. Jaitsiera. 91 talde eta 1.300 arraunlari inguru bildu ziren hitzorduan, eta aparteko giroa izan zen uretan eta errio bazterrean bildu ziren ikusleen artean. Gainera, Orio Arraunketa Elkarteko emakumezkoen traineruak lortu zuen garaipena, bigarren sailkatu zen Arraun Lagunak taldeari 17 ehuneneko aterata. Gizonezkotan, berriz, Hondarribia izan zen nagusi, eta etxeokok hirugarren egin zuten. ■■■





Egin zaitez KARKARA laguntzaile eta hartu parte gure hileroko zozketetan

Zergatik KARKARA laguntzaile?

- Nire herriaz kalitatezko eta gertuko informazioa jasotzen jarraitu nahi dudalako. Hilero nire etxean eta uneoro **karkara.eus**-en.
- Euskaraz bizi nahi dudalako eta euskararen biziberritzea bultzatu nahi dudalako.
- **KARKARA laguntzaile**aren abantailez gozatu nahi dudalako.
- **KARKARA laguntzaile** izateko deitu **688 85 96 82** zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Urteko kuota: 36 euro.

PARTE HARTZEKO:

Deitu 688 85 96 82 zenbakira edo idatzi **karkara@karkara.eus** helbidera. Parte hartzeko epea gaurtik martxoaren 3ko eguerdiko 12:00ak arte. Irabazlearen izena KARKARAKo hurrengo zenbakian argitaratuko da. KARKARA laguntzaile eta KARKARA laguntzaile berrientzat bakarrik.

HILABETEKO

ZOZKETAREN IRABAZLEA:

Bidasoa Irun eskubaloiko kamiseta sinatua



Bittor Andresek jaso zuen Miren Ostolazari tokatutako saria.

Hil honetako
KARKARA laguntzaile
zozketak:



Itzuliz usu begiak - Anjel
Lertxundi
Liburu bat




The Pass
Gosari bikoitz bat


PARTE HARTZEKO:

Deitu 688 85 96 82 zenbakira edo idatzi karkara@karkara.eus helbidera. Parte hartzeko epea gaurtik martxoaren 3ko eguerdiko 12:00ak arte. Irabazlearen izena KARKARAKO hurrengo zenbakian argitaratuko da. KARKARA laguntzaile eta KARKARA laguntzaile berrientzat bakarrik.

PUBLIZITATEA



Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27

MENDIZABAL AROTEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA




Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

Oreka

fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



ORIA
hortz klinika

Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-83 36 45

Oria Hortz Klinikak **ORTODONTZIA**
zerbitzu berria jarri du martxan.

Prebentzioa ezinbestekoa dela
jakinda, hartu aurre etorkizunean sor
daitezkeen arazoet.



Orioko
Herri
Ikastola

Herri Onurako Kooperatiba

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@iikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



PAKO IMAZ

pertsianak

PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



%100 etxean egina

PIZZERIA
KALETA

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46

ZINKU ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Ander Zinkunegi
667 74 02 79



Portu
Erretetgia - Jaitetxea

Kazolitat, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34

Oraingoz dena ondo



XABIER ETXEBERRIA

Moila Bazterretik hau idazten ari naizen egunean, itsasoak moila txikitu du nire herrian, Zarautzen. Internetez, harrizko horma lodian egindako zulotik ura purrustan sartzen ikusita, hamaika filmetan errepikatutako irudia etorri zait gogora: piraten kanoikada batek itsasontzia zulatu eta, ez hondoratzeko, marinela ura kanpora atera nahian ari diren eszena hori. Jo ta ma geratu naiz, aitortu beharra dut, barrena mugitu dit.

Zuk, KARKARAko irakurle, hau irakurtzen duzun egunerako ordea, Zarauzko moilaren irudi hori jada ia-zeharo ahaztua egongo da agian, eta egunerokotasunak ekartzen dizkigun beste hamaika irudiren azpian guztiz-zeharo lurperatua geratuko da ziurtasun osoz. Baina, jakina, horrek ez dio arazo honi bere larritasuna kenduko. Marea, pixkanaka, gora datorkigu. Klima aldaketaren ondorioz, beste zenbait eragin ikaragarriren artean datozen urteetan itsas-maila era etengabea igoko dela aurreikusten dute adituek. Eta hori ez da gertatuko Indonesian edota Artikoan (soilik). Baizik eta hemen, euskal kostaldean. Orioko plaza txukuntzen eta konpontzen ari diren honetan, ez dakit ez litzatekeen moila bazterra altxatzea komeniko, urte gutxiren buruan Veneziako kanalen itxura hartuta bukatu nahi ez badugu. Txantxetan diot, baina serio ari naiz.

Sarritan, klima aldaketari buruzko gure jarrerak – “*Bai, bale, hala da baina beno...*”- aurrean datorkiona ikusi nahi ez duen baikor kamikazearen irribarre txorua ekartzen dit gogora. Frantziar filma bateko pasarte ezagun horretan bezala: 50 solairuko etxe batetik erori da gizon bat eta erorketan, lasaitu nahian, bere buruari behin eta berriz “*jusqu’ici tout va bien*” errepikatzen dio, oraingoz dena ondo doa. Lurraren aurka jo arte, noski.

Gu ere lurrera amildu eta txikituta geratu aurretik, zerbait egiten hasteko garaia ote den pentsatzen hasia nago. Eta guk diodanean, irakurle, zuk eta nik esan nahi dut. Agintariek -guk aukeratuak, haiek ere- egingo dutenaren zain egon gabe. Beste kontu askotan bezalaxe, arazo honen irtenbidea gure esku baitago. Ingurumena zaintzeko zer egin dezakegun, gehiago edo gutxiago, denok badakigu. Edo jakin behar genuke.

Raynald Denoueixek Erreala entrenatzen zueneko omen da anekdota, eta seguru Imanol Alguacilek ere lasai asko sinatuko lituzkeela frantsesaren hitzak: partida bat galdu ondorengo egunean, Zubietako arbelean “NO EXCUSAS” idazten omen zuen. Aitzakiarik ez.

Postdata:

Ordenagailua itzali eta Santio auzo aldera abiatu naiz pixkat ibiltzera. Bide bazterra garagardo-lataz, patata-zorroz eta yogurt potez betea. 37. solairua, 36, 35... Oraingoz dena ondo doa. ■■■

**KLIMA ALDAKETAREN
ONDORIOZ, DATOZEN
URTEETAN
ITSAS-MAILA ERA
ETENGABEAN IGOKO DA**

“Emakumeok geure artean noka”

Hizkuntzaren eta generoaren artean “lotura estua” dagoela uste dute Orioko Ahalduntze Eskolako kideek. Horregatik, noka ikastaroa abiatu dute, hizkuntzaren bidez transmititzen diren botere harremanak hautsi eta emakumeek gizartean galdutako eremua berreskuratu dezaten.

Testua eta argazkiak: **Aiora Larrañaga Solaberrieta.**

Hilaren 21ean abiatu dute noka berreskuratzeko ikastaroa Orion, emakumeen arteko edo horiei zuzentzeko erabiltzen den hizkuntza erregistro informala pixkanaka herrian galtzen ari dela konturatuta. Orioko Udaleko Euskara batzordeak eta Orioko Ahalduntze Eskolak elkarlanean martxan jarritako ekimena da, eta antolatzaileak “oso gustura” daude lantegiak emakumeen artean izan duen harrerarekin. Izan ere, 22 laguntzako tokia zegoen ikastaroan, eta aspaldi bete zen dena.

Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuak proposatu zion ahalduntze eskolari nokaren inguruko ikastaroa antolatzea. “Nokaren galera orokorra da: Euskal Herri osoan gertatu da, eta Orion ere nabarmena da. Gure herrian, ordea, badaude oraindik nokaren sua berriro piztu dezaketen txinpartak, emakume batzuk —ez asko, baina badira— normaltasun osoz erabiltzen segitzen dute-eta”, azaldu dute Euskara batzordeko kideek. Hala, azken aldian, mugimendu feministak hartu duen indarraren anparoan, nokarekiko interesa berriro da gazteen artean eta hainbat egitasmo abiatu dira han eta hemen nokaren ezagutza eta erabilera sustatzeko. “Testuinguru horretan erabaki dugu guk ere gaiari heltzea: Ahalduntze Eskola sortu berri denez, iruditu zaigu momentu egokia zela noka indartzeko ahalegin hau abiatzeko. Euskarak eta feminismoak badute bide bat elkarrekin egiteko, eta aurrerago ere antolatuko ditugu ekimen gehiago elkarrekin”, azaldu du Jabier Zabaleta Orioko Udaleko Euskara teknikariak.

Euskara eta feminismoa

Hasiera batean noka lantzeko ikastaroak hizkuntza arlora mugatzen dela badirudi ere, emakumeen ahalduntzearekin “erlazio zuzena”



duela azaldu dute Ahalduntze Eskolako Eider Goiburuk eta Aizpea Esnaolak. “Kulturatik datozen balioak transmititzeko tresna da hizkuntza. Hori dela eta, kultura matxista den heinean, hizkuntza ere matxista da. Gainera, Orion tokaren erabilera orokortzen ari da eta, gazteek batez ere, emakumeei zuzentzerakoan ere toka erabiltzen dute”.

Nesken artean noka galtzeaz harago, Ahalduntze Eskolako kideak kezkatzen dituen da zenbait neska kuadrilletan edo neskez eta mutilez osatutako taldeetan beren artean toka hitz egiteak. “Gazteen artean zabaltzen ari den ohitura da”, eta tokaren erabilera gizon zein emakumeei zuzentzeko erabiltzen denean, “hierarkizazio” bat gertatzen dela adierazi dute Berdintasun teknikariek. “Izan ere, emakumeei toka hitz egiten zaigunean, hizkuntzaren bidez ikusezin bihurtzen gaituzte. Emakume askori atentzioa ematen digu, bortitza egiten baitzaigu, baina beste askorentzat normala bihurtu da, etengabe entzuten duten forma delako”, adierazi du Esnaolak.

Horregatik, tokaren orokortzeari aurre egin, emakumeak ahaldundu eta galdutako eremuak berreskuratzeko, noka ikastea eta erregistro horren erabilera indartzea bide egokia dela uste dute Goiburuk eta Esnaolak. “Jendartean gure tokia berreskuratu behar dugu. Toka gizon zein emakumeekin hitz egiteko erabiltzea, ez da ondoriorik gabe akzio bat, emakumeak espazio sinbolikotik ateratzea baitakar”. Hala, noka ikastaroa martxan jarri, emakumeek gizarteko parte direla eta izendatuak izan nahi dutela aldarrikatu nahi dute. “Euskarak emakumeak izendatzeko aukera ematen digu, horregatik berreskuratu eta indarra eman nahi diogu”.

Noka ikastaroa Salatxo aretoan.



Amaia Zalduak gidatzen du Noka ikastaroa Amaia Olazabalekin batera.

Bestetik, ahalduntzeko tresna izateaz gain, nokak emakumeen arteko konplizitatea errazten eta indartzen duela ere uste dute Berdintasun teknikariek. “Emakumeon artean gertuko harremana sustatzen duen erregistroa da, eta uste dut harreman eredu horrek gailendu behar duela gure artean”, azaldu du Eider Goiburu teknikariak. “Ez da berria, Orioko emakumeek beti erabili baitute noka beren artean harremantzeko”.

Gazteen hizkuntza ohiturei arreta jarriz gero, herrian nokaren erabilera desagertzeaz dagoela badirudi ere, 50 urtetik aurrerako emakumeen artean bizi-bizirik dirau oraindik. “Inguruan baditugu noka Orion baino gutxiago erabiltzen duten herriak. Zorionez, adineko emakume askok erabiltzen dute belaunaldiz belaunaldi transmititu den noka, eta hori oso aberasgarria da. Erreferenteak baditugu herrian, eta polita izango litzateke gazteok noka ikasi eta betidanik erabiltzen dutenekin praktikatzeara”.

Feminismoaren barruan, orain arte gutxi landu dute nokaren erabilera emakumeen ahalduntze prozesuan izan dezakeen garrantzia. “Hizkuntza sexistaz hitz egiten denean, esaera zaharrak eta esamolde mordoak aztertzen dira, euskarak forma generikoa markatzen ez badu ere, badituelako sexismo hori transmititzeko moduak. Lanketa horretan ez da hitanoaren gaia gehiegi sakondu, hau da, orain arte gutxi jorratu da ahalduntze prozesuak martxan jartzeko baliabide moduan”. Horregatik, Orion bezalaxe, hainbat herritan noka berreskuratzeko egitasmoak martxan jartzen ari dira. Azpeitian esaterako, *Hitanoa, emakumeak ahalduntzeko tresna* jardunaldiak egin zituzten iaz. Beste zenbait herritan, Gabirian eta Errenterian kasu, Nokaldiak antolatu zituzten, eta paparrean txapa zeramaten herritarrek beren artean noka aritzeko konpromisoa hartu zuten. Dena dela, Oriokoa bezalako noka tailer gutxi egin dira orain arte, eta nokaren erabilera indartzeko balio izatea espero dute antolatzaileek.

Orioko Euskaltegia

Orioko Euskaltegiko irakasle Amaia Zaldua izango da noka ikastaroko gidaria, eta ilusioz hartu du erronka. “Urola Kosta mailan eta Euskal Herrian hitanoa lantzeko ikastaroak antolatu izan dira, baina orain arte gutxi jorratu da noka. Urola Kostako AEKtik beti izan dugu noka lantzeko gogoia, eta Orioko Udalak eta Orioko Ahalduntze Eskolak proposamena egin zigutenean poztu egin ginen”. Izan ere, AEKko kideek duela sei urte erabaki zuten beren artean noka hitz egitea. “Gehienok emakumeak gara, eta noka aritzeko ohitura dugu. Dena dela, ni ez naiz joango aditu bezala,

libe
dietetika
elikadura aholkularitza
Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantzale kaletik)

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com

Noka

Oker	Zuzen
Hor al zion Miren?	Hor al dago Miren?
Ez zakinat zer ordutan iritsiko naunan	Ez zakinat zer ordutan iritsiko naizen
Bazekinat hura ez denela horrelakoa	Bazekinat hi ez haizela horrelakoa Bazekinat hura ez dela horrelakoa
Etortzen badun abisatu	Etortzen bada abisatu
Galtzen bagaitun deitu	Galtzen bagara deitu

Toka

Oker	Zuzen
Esaiok ez naukela joango	Esaiok ez naizela joango

aritu bezala baizik. Amaia Olazabal lankidea ere nirekin izango da, eta guk nola hitz egiten dugun erakutsiko diegu ikasleei”.

Ikastaroa praktikoa izango da, eta helburu zehatza lortu nahi du Zalduak: parte hartzaileei noka “zuzen” hitz egiten erakustea. “Lehen egunetik noka hitz egiten jarri nahi ditugu ikastaroan parte hartzen duten emakumeak. Egia da hitanoa bizirik dagoela gure eskualdean, baina hiztunek ez dakizkitez arauak, eta batzuetan gaizki hitz egiten da”. Horregatik, oinarritzko teoria ere azalduko dute lantegian.

Bailarako emakumeak

Oriotarrek ez ezik, inguruko herrietako emakumeek ere ikastaroan interesa agertu dute. Hala, oriotarrez gain zaraularrek eta usurbildarrek ere parte hartuko dute lantegian. 22 lagun inguruko taldea biltzea aurreikusi zuten antolatzaileek, eta uste baino lehenago bete zen izen-emate zerrenda. Orioko Ahalduntze Eskolako kideek iritzi diote oro har herrian badela emakumeei zuzenean eragiten dieten hainbat gai jorrazteko nahia. “Ez dakigu orain arte gauzak antolatzerakoan gehiegi pentsatu izan den emakumeengan. Agian herritar orori zuzendutako lantegiak antolatu izan dira, baina gizarteaz orokorrean hitz egiten denean gizonak hartzen dira erreferentetzat, eta ez da ahaleginik egiten emakumeak gonbidatzeko edo emakumeek bizi dituzten egoerak kontuan hartzeko”. Emakumeengana iristeko eta euren beharrez jabetzeko bidean Orioko emakumeen inguruko diagnostia ezinbesteko tresna izan dela uste dute teknikariek. “Ikastaroak ez ditugu guk aukeratu, diagnosi horretan argitara atera ziren beharrei erantzuteko sortutako ikastaroak dira”. Hala, aurrerantzean ere ikastaroak antolatzen jarraitzeko asmoa du ahalduntze eskolak. ■

**ORIOITARREZ GAIN
ZARAULTARREK ETA
USURBILDARREK ERE
PARTE HARTUKO DUTE
LANTEGIAN**

**FEMINISMOAREN
BARRUAN, ORAIN ARTE
GUTXI LANDU DUTE
NOKAREN ERABILERA**



MIRARI AZPIROZ ETA NAOMI MENDIZABAL

Aiatik Bujagalira eta Bujagalitik Aiatik

Mirari: Jambo Naomi eta jambo denoi!

Naomi: Jambo Mirari eta irakurleoi!

M: Naomi, nondik hasiko gara?

N: Ba, garrantzitsuen aipatuz, Mirari. Martxo aldera erakusketa eta hitzaldi bana antolatuko ditugu Aiako Kultur Etxean Bujagalin (Uganda) izandako gure esperientziak eta Mukwano Lagun elkartearen lana erakusteko. Galdu ezin daitekeen aukera izango da; beraz, animatu!

M: Behin hori esanda, has gaitezen hasieratik: Aiatik Bujagalira. 2018ko urrian lanean opor tarte handi samarra izatea lortu nuen, puntu garrantzitsua Osakidetzan ordezkotza erizaina naizela kontuan izanda! Elkartearikiko interesa Joseba,

Amagoia eta Anek Orion emandako hitzaldiaren ondoren piztu zitzaidan. Ez zen inoiz Afrika nire planetan egon, baina, zergatik ez? Hirukoteak Sabinengana bidali ninduen. Ez dakizuenontzat, Sabin eta bere familia izan dira erokeria zoragarri hau martxan jarri eta jarraipena eman diotenak. Hark elkartearen nondik norakoak eta erizain bezala egin nezakeena azaldu zizkidan. Erabat konbentzitu ninduen. Beraz, Aian arropa eta oinetako bilketa sinesgaitza egin ondoren, maletak toperaino bete eta Bujagalira abiatu nintzen. Nola izan zen zure hasiera?

N: Niri txikitatik gustatu izan zait bidaiatzea eta leku berriak ezagutzea. Neure dirua irabazten hasi nintzenetik, bakarrik, lagunekin,

bikotearekin eta taldean bidaiatu dut munduko hainbat txokotara. Bazen, ordea, nigan alderdi bat oraindik arakatzeko eta ezagutzeko neukana, eta hori nire alderdi afrikarra zen. Urteak neramatzan gobernu kanpoko erakundeez informatzen, baina inork ez zidan nik nahi nuena eskaintzen. Hasiera batean, ez nekien nora joan, ze laguntza mota eskaini, zenbat denboraz joan, baina nire atentzio eta energia dena zentratzen hasi nintzenean, etorri ziren erantzunak. Egun batean, klaseko elkarrizketa batean, zure amak kontatu zidan Afrikatik bueltan zentozela. Hori jakin bezain pronto, zurekin kontaktuan jarri nintzen. Pare bat egunetara Aiako kafetegi batean gelditu ginen, eta zure esperientzia

HAUXE BAI JENEROA!



Aiara

kontatu zenidan. Hasieratik harrapatu ninduen bertara joateko gogoak. Izan ere, hitz egiten zenuen bitartean bazen zure begietan emozio eta zoriontasun puntu bat. Kontatutako dena gustatu zitzaidan. Ideia nahiko argi izanda, ni ere Sabinekin jarri nintzen kontaktuan. Lana asko erraztu zidan hark, bi aldiz geratuta, argi geratu baitzitzaidan zein izan zitekeen nire papera eta nire eginbeharra. Bileteak erosi, maleta arropa eta materialez bete, eta hantxe hasi zen Mukwano-Lagun elkartearekin egindako nire abentura.

M: Zein zaila den han bizitakoa hemen adieraztea, ezta? Horregatik erabaki dugu izenburuaren bigarren zatia martxan jartzea: Bujagalitik Aiara. Zuk esan bezala,

astebetetz, Mukwano-Laguneko boluntarioek ateratako argazkien bidez Bujagaliko errealitatea erakusten saiatuko gara. Ezinezkoa izango da hango paisaia berdea, lur gorriaren usaina, kaleetako soinuak eta gauetako isiltasuna Euskal Herrira ekartzea. Eta, noski, zaila izango da Mukwano-Laguneko hango Nefaha elkartearekin batera egiten duen lana ekartzea. Baina ez dadila izan saiatu ez garelako.

N: Erakustaldiaz gain, hitzaldi bat emango dugu, Mukwano-Lagunen helburuak eta hango gure esperientziak azalduz. Data zehatzak sare sozialen bidez zabalduko ditugu aurrerago.

M: Beraz, mukwanook, animatu! Ongietorriak izango zarete! ■■■

NIRE HONETAN



**INTZA UNANUE
ARRUBARRENA**

Amaieraren hasiera

Honaino ekarri nau bideak. Amaieraren hasierara. Etapa bat itxi eta beste bat irekitzeko garaira.

Urtebete pasatxo egin dut Kultur Etxeko bigarren solairuan lanean. Denbora gutxi izan da, akaso. Probetxuzkoa, ordea. Herri kazetaritza gertu-gertutik ezagutu dut. Hasiberrian maiz entzun nuen ez dela esker oneko jarduna. Eta, hara, badu arrazoi apurra esanak. Egun guztiak ez dira izan errazak, baina denek izan dute ikasteko baliagarria, izan zaidan zer bait.

KARKARari esker orain arte 'aio' soil batez agurtzen nituen oriotar ugari gertutik ezagutu ditut. Hauteskundeen urduritasuna barru-barrutik bizitzeko aukera izan dut. Arraun jardunaldien berri emateko ohorea izan dut, baita Kontxako Estropadan arranplatik zuzenean lan egitekoa ere, emozioari ezin eutsiz. Aiako baserrietan barrena galdu naiz behin baino gehiagotan. Denbora laburra izan da, baina gogoan izango ditut bizipen ugari.

Eskerrik asko aldizkariaren beste aldean egon zaretan guztioi. Baita KARKARA bizirik mantentzeko gogor lan egiten duzuenoi ere, bereziki zuri, Aiora. Eta horrela, konturatzerako iritsi zait, amaiera honen hasiera, berriz ere beste bide berri batekin hasteko. Plazer bat izan da. ■■■



PUBLIZITATEA



Sagasti
LEIHOAK
Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arrantzale kalea, 65
20810 Orio

Roberto Sagasti

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihoak.com



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16
943-89 40 52
012137aa@hezkuntza.net



Seguros Bilbao Santi Barranco
Orioko Ordezkarria


Endaia Enparantza, 1 · ORIO · sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 · 688 71 48 69





SU KIA
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29



Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com ·  

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupezioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesoaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresiboa (GAH), REDCORD.

BIYONA

BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

etxea sukaldeak
bainugela ...
leihoak etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu

 Abendaño poligonoa, 2 · ZARAUTZ ·  943-13 50 16 · www.biyona.net

Gu gurera



TESTUA: RIKARDO UZKUDUN

XXI. mende hasieran Aia eta Orio euskaldunak direla idazteko moduan gaude, inongo zalantzarik gabe. Euskal Herriko toki gutxitan bezala, neurri handi batean, euskara nagusi da gure bi herrietan. Ez dakit jabetzen ote garen zein ederra den entzutea euskaraz barra-barra edozein, edozein txokotan, edozein momentutan.

Hala eta guztiz ere, hori esanda, azti ibiltzeko garaia da, gizartea asko aldatzen ari da, eta hizkuntza gutxituen osasuna ahula izaten da. Badira momentu batzuk, esate baterako, euskararen alde egon arren, euskaratik alde egiten dugunak:

- Batzuk, gazteagoekin, euskaraz aritzen dira, erosketak egiten jo dezagun; eta bat-batean kuadrillako batekin topo egiten dute, eta gaztelaniaz hasten dira. Garai batean hala ohitu ziren, eta kosta egiten zaie euskarari eustea.
- Ohikoa baino jasoagoa den gai batez hizketan, eta batez ere, eztabaidan hasten garenean. Badut lagun min bat, euskaraz bikain egiten duena, etxean jasoa eta ikasketa guztiak euskaraz egin dituen, baina bere lan kontuez edo pil-pilean dauden gaiez hitz egiterakoan hitzak ekarri ezinik ibiltzen dena, eta segun norekin, gaztelaniara ri-rau salto egiten duena.

- Errespetuaren izenean erdaraz hitz egiten dutenak. Talde handi xamar batean, baten batek ondo ez dakielako, jo dezagun portaleko bilera batean, dena erdaraz egiten dutenak, bestelako irtenbiderik ez balego bezala.
- Euskaraz bizi-bizi moldatzen ez diren herritarrekin topo egitean euskaraz egiteari eusten ez diogunean. Adibidez, herrira bizitzera etorri den ez dakit nongoari, euskaraz pixka bat bat kostatzen zaiola ikusten badugu, minutu baten bueltan, erdaraz hitz egiten hasten gataizkio.
- Liburu, musika edo pelikula bat aukeratzeko garaian. Irakurtzea maite dugu, baina euskarazkoa hartzea kosta egiten zaigu.
- Kanpoko itxura duen batekin. Izan ustezko turista, etorkin edo saltzaile. Aurreneko hitza askotan erdaraz ateratzen zaigu.
- Unibertsitatera joan, eta erdarazko joera handiagoa duten ikaskide berrieekin.
- Euskadiko enpresa edo zerbitzu desberdinekin. Email bat dela, eta telefono dei bat, edo bilera bat ezezagun batekin, eta galdetu baino lehenago, gaztelaniaz egitea erabakitzen dugu sarritan.
- Eta bestelako zenbait gairekin. Edo leku zehatzetan, edo konbertsazioari tonu zehatz bat eman nahi diogunean, whatsapppe txorrada bat bidaltzeko garaian igual.

Hori guztia, edozein soziolinguistak esango digu, ohikoa da menderatutako hizkuntza batean bizi diren herrietan. Behin eta berriz aditzera ematen digutenean, alde edo moldez, goitik edo behetik, parez pare edo pantailatik, euskaraz bai baina, gehienbat, ingurua erdaraz bizi dela. Zaldibarko krisian, gai inportanteetan esan nahi baita, jende aurrean agintariak erabili duten hizkuntzari erreparatu bestela, edo telebista publikoko programa izarrak euskaldunak erdaraz jartzen dituenen. Ganoragabekeria handia dago euskararen biziberritzean, oro har. Garbi esanda, hegoaldekoak mediatikoki Espainiako hedabideen menara bizi gara eguna joan eta eguna etorri, eta etxean eta eskolan euskaraz eginda ere, ez da erraza interkonektuta dagoen mundu berri honetan euskarari eustea.

Beste alde batetik, ordea, lehen esanda bezala, ederra eta sano inbidiagarria da gure herrietan euskarak duen presentzia. Gure buruaz, euskaldun izateaz, harro sentiarazten gaitu, eta esango nuke, beste arrazoi batzuen artean, bizitzera etorri diren familia dezenterentzat inportantzia handia izan duela herri euskalduna izateak. Herri honen autoestimua, kohesioa eta bizikidetzat euskaratik pasako dira. Horretan behintzat, zalantzarik ez dut nik. ■■■■

Gripe garaia



TESTUA: GORETI ARANBURU

Urteko garai honetan nahikoa ohikoa den moduan, aurten ere asko hitz egin da gripe-epidemiak. Hori dela eta, griperari buruzko xehetasun batzuk ekarriko ditut artikulu honetara, gaiaren inguruan informazio praktikoa eduki eta gaixotasunari aurre nola egin jakiteko.

Lehenik eta behin, komenigarria da gripea zer den zehaztea: birus batek sortzen duen gaixotasun oso kutsakorra da. Eztula edo doministikua egitean airera botatzen ditugun listu-tanten bidez zabaltzen da gehien, baina eskuen kontaktuaren bidez ere bai. Normalean, bost egun inguruko inkubazio denbora izan ohi du; hori da normalean kutsatu eta sintomak azaldu bitartean pasatzen den denbora tartea. Gripearen sintoma nagusiak sukar altua (38° baino gehiago), giharretako eta buruko mina, ahulezia, eztula, mukiak eta eztarriko mina dira.

Gripe gehienetan arazorik gabe sendatzen bada ere, neurri berezirik hartu gabe, gaixotasuna pasatakoan konplikazioak gertatu daitezke: adibidez, pneumonia, sinusitisa, otitisa, edo asma gehiago izatea.

Prebentzioari dagokionez, txertoa da neurrikerik eraginkorrena. Ez du beti gaixotasuna eragozten, baina gripea harrapatuz gero, arinago pasatzen da, konplikazio gutxiagorekin. Txertoa, batez ere, arrisku taldeetako pertsonentzat da gomendagarria: 65 urte edo gehiagoko lagunentzat, gaixotasun kronikoak dituztenentzat, haurdun dauden emakumeentzat, pertsonal sanitarioarentzat eta zaintzaileentzat...

Azpimarratzekoa da badirela gripea besteei ez kutsatzeko hartu daitezkeen neurriak: esaterako, zintz egiteko paperezko mukizapiak erabiltzea eta berehala botatzea, eztula egitean ahoa eta sudurra besoarekin edo zapiarekin estaltzea, eta eskuak sarri garbitzea ura eta xaboiarekin.

Behin gripea harrapatutakoan, tratatu egin behar da, eta jarraibide hauek egokiak izan daitezke horretarako: garrantzitsua da gaixoak atsedena hartzea eta etxean geratzea, eskolara edo lanera joan gabe. Horrela, azkarrago pasako du gaixotasuna, eta ez da eskolako lagunak edo lankideak kutsatzeko arriskurik izango.

Bestalde, garrantzitsua da hidratazioa zaintzea eta ura edatea. Sendagaiei dagokionez, analgesikoren bat hartzea aholkatzen da; Parasetamola, adibidez, egokia da giharretako eta buruko mina arintzeko eta sukarra gutxitzeko.

Sarritan, jendeak zalantza izan ohi du gripearen sintomak sentitu eta medikuarena edo larrialdietara joan edo ez erabakitzean. Bada, hau da gure gomendioa zalantza horiek sortzen direnerako: haur txikien kasuan, komeni da mediku zentzoren batera joatea arnasketa azkarra edo arnasa hartzeko zailtasunak agertuz gero, eta larruazalean erupzioak agertzen badira ere bai. Gripearen sintomak hobetu, baina berriro agertzen badira, komeni da medikuari bisita egitea, baita hurrek jateko, jolasteko edo mugitzeko gogorik ez badute ere.

Pertsona helduen kasuan, komeni da medikuarenera joatea lehen aipatutako arrisku talderen batekoa izanez gero edo haurdun egonez gero. Sintoma hauek atzematen badira ere bai: arnasa hartzeko zailtasuna, mina edo presioa bular edo sabelaldean, zorabioak, nahaste sentsazioa edo 38 gradutik gorako sukarra lau egunez. ■■■



ZINGIRA ESKOLA

Fruta-denda ezagutzen

JOXE MANUEL GOZATEGI FRUTADENDA

Noiztik dago Gozategi? Noiztik zabilta zu lan honetan?

Gozategik hemen eman ditu 12-15 urte. Orain dela 22 urte hasi nintzen lan honetan. Beste supermerkatu batzuk eduki nituen lehenago: Ondo Erosi eta La Huerta.

Gustatzen al zaizu zure lana? Zer gustatzen zaizu gehien?

Hau ikasi nuen. Egia esan, eskola ez zitzaidan asko gustatzen. Nire lanarekin atera nuen bizitza eta familia aurrera. Jendearekin harremana edukitzea da gehien gustatzen zaidana.

Egon al da zerbait eskatu dizuena eta ezagutzen ez zenuena?

Bai, noski. Fruta munduan asko dago, askotan Interneten begiratu behar izan dut.

Ikusi dugu produktu ekologiko asko dituzula. Gehiago saltzen al da orain?

Hori nire egoskorkeria da, baina berez, dirua galtzen da. Oso merkatu zaila da, normalean jendeak nahiago du gutxiago ordaindu. Batzuek esaten dute ez dela egia, kontu bat besterik ez dela eta zaila da haiek konbentzitzen. Nik badakit egia dela, tratatu gabe etortzen diren barazkiak goizago estropeatzen direlako.

Ikusi dugu plastikoaren erabilera murrizteko kanpaina martxan daukazuela. Zer-nolako ohitura dauka jendeak?



Duela urtebete eta bi hilabete hasi ginen, baina ikusi dugu bezero bat baino gehiago galdu ditugula. Eskatzen dutenei ematen diogu bateren bat, baina ez diegu uzten nahi dituzten guztiak hartzen. Oso zaila da horrelako aldaketak ematea, baina saiatu egin behar dugu.

Produkturen bat txarra jartzen hasten denean, zer egiten duzue?

Normalean badakigu ze bezerori oparitu. Ez diogu edozein bezerori ematen batzuk gaizki hartu dezaketelako. Oso ustela dagoenean, basuretara botatzen dugu.. Gauza asko aprobetxatzen ditugu etxean; letxuga edo perretxiko itsusiak, adibidez. Begiekin ez dugu jan behar eta...

Gero, kamerak bisitatu eta hainbat opari egin zizkigun Joxe Manuelek. Oso gustura egon ginen. Astero egiten dugu Gozategin erosketak eta orain gehiago ezagutzen dugu bere lana. MILA ESKER! ■■■



JANIRE ETXEBARRI
ANDER ANTON

Telefono mugikorraren erabilera

Kendu begiak pantailatik eta begiratu ingurura!"

Denok egongo gara ados sakelekoak gauza on asko dauzkala: komunikazioa errazten digu, GPSa, informazio azkarra... Baina bere alde desegokiez ere hitz egin nahi dugu. Alde batetik, distrakzioak daude. Beste pertsonekin gaudenean, gehienetan soberan dago mugikorra. Ez al zaizue gertatzen norbaitekin hitz egiten zaudetenean ez dizuela kasurik egiten mugikorrarekin dagoelako? Eta denda batera joan eta zain egon behar izatea, dendaria mugikorrari begira dagoelako?

Beste aldetik, mugikorra erabiltzeak lotarako orduan lo gutxiago egitera eramaten zaitu. Gure ustez, hobe da liburu bat irakurtzea lo egin aurretik. Guk, normalean, ez bagaude oso nekatuta, pixka bat irakurtzen dugu. Azkenik, kezkatuta gaude osasunagatik. Adibidez, postura txarra hartzen dugu telefonoarekin gaudenean. Gero, bizkarrean eta lepoan daukagu mina eta, hala ere, jarraitzen dugu berdina egiten.

Esaten da telefono mugikorrak urruti daudenengana gerturatzen gaituela, eta gertu daudenengandik urruntzen gaituela. Gure kezka zuekin elkarbanatu ditugu zuek ere gai honen inguruan pentsatzeko. Kendu begiak pantailatik eta begiratu ingurura! ■■■

Etxeluzen zirku emanaldia eskainiko dute otsailaren 29an

'La maquina y yo' antzezlana emango dute asteburuan Etxeluze gaztetxean. Azaldu dutenez, ikuskizunaren ardatza pertsona sortzaile baten eta makina bitxi transformatzailearen arteko harremana da. Zirku vintage-an oinarrituta dago, eta ikuslea gonbidatuko du pertsonaiaren sorkuntza-munduan barrena bidaiatzera; eszenografia mugikorra izateaz gain, protagonista bera ere zirkuaren zati bizi eta aktiboa da. Keinu bidezko emanaldia da, eta adin guztietako lagunei zuzenduta dago.



La maquina y yo antzezlako irudiak. UTZITAKOIA

Saioa otsailaren 29an izango da, larunbatarekin, eta funtzioa 18:00etan hasiko da. Txartelek 2 euroko prezioa izango dute 12



urte arteko haur eta gaztetxoentzat, eta 7 eurokoa gainontzekoentzat. Etxeluze gaztetxeko ateak irekita egongo dira 17:30etatik aurrera.

Martxoaren 25ean Orioko Erretiratu eta Pentsiodunen Eguna ospatuko dute



Erretiratuen bazkaria sagardotegian.

Orioko Zaharren Babeslekuak antolatuta, Erretiratuen eta Pentsiodunen Eguna ospatuko dute

martxoaren 25ean. 12:00etan meza izango da Bariko San Nikolas parrokian, eta 14:00etan bazkaria

egingo dute Aginagako Errasti sagardotegian. Bertara iristeko autobusak antolatuko ditu Zaharren Babeslekuak. Lehena 13:00etan izango da, eta bigarrena 13:30ean. 18:00etan izango da bueltako autobusa.

Erretiratu eta Pentsiodunen Egunean parte hartu nahi dutenek martxoaren 16an eta 17an erosi beharko dituzte txartelak, 23 euroren truke. Zaharren Babeslekuan salduko dituzte 16:30etik 18:00etara bitartean. Elkarteko zuzendariak jakinarazi du txartela erosteko bazkideek eguneratuta eduki beharko dutela sozio txartela. Horrez gain, zehaztu du txartela erosi eta atzera egiten duenari ez zaiola dirurik itzuliko arrazoizko justifikaziorik gabe.

Bestalde, bazkarira joaten diren guztiek jatetxeko arduradunari emango diote txartela bazkarirako garaian.

Itsaspeko goiko bidea itxi dute egonkortze lanak egiteko

Orioko Udalak jakinarazi du dagoen asteetan obrak egin behar dituztela Itsaspeko bidean, ezpondak egonkortu eta segurtasuna bermatzeko, eta bidea itxita egongo dela autoentzat eta oinezkoentzat.

Itsaspeko goiko bidean egingo dituzte lanak, eta bidea oso estua denez, ezin da txandakako zirkulazioa ezarri eremuan. Bestalde,

hondartzatik Itsaspe aldera abiatzen den bidea ere ixtea erabaki du Orioko Udalak, segurtasunagatik. Izan ere, azaldu dute bada-goela arriskua goiko bideko harri solteak beheko bideraino iristekoa. Herritarrei debekua errespetatzea eskatu die udalak.

Obrak Construcciones Zubieder enpresakegingo ditu, eta 164.506,11 euroko kostua izango du (BEZ

barne). Lanek 10 aste irautea aurreikusi badute ere, Aste Santuko oporraldian bidea irekitzea da asmoa.



Itsaspeko bidea. ORIOKO UDALA


Igandean jokatu da Aiako IX. Mendi Lasterketa

Aiako Kirol Elkarteak antolatuta, IX. Mendi Lasterketa jokatu da martxoaren 1ean, igandearekin, Pagoeta Natur Parkean. Parte hartzaileek 14,6 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute Aiako mendietan eta basoetan barren, eta ibilbidea "zoragarria" dela nabarmendu dute antolatzaileek. Hala, kirola eta natura maite dituzten herritarrek lasterketan parte hartzera animatu dituzte.

Aiako Mendi Lasterketan 400 lagunentzat tokia egongo da, eta otsailaren 28ra bitartean izen-ematea Internet bidez egin arien, egunean bertan, lasterketaren aurretik, izena emateko aukera ere zabalduko du Aiako Kirol Elkarteak. Dena dela, azken egunera arte itxaroten duten kirolariek gehiago ordaindu beharko dute mendi lasterketan parte hartzeagatik.



Aiako Mendi Lasterketa. KARKARA



Kintopeko Idi Probak.

Aiako XXII. Kintopeko Idi Probak jokatu dituzte martxoaren 6an eta 9an

Ohiturari eutsiz, Aiako Idi Proba Elkarteak kintopeko idi probak antolatu ditu Aiako Udalaren laguntzarekin. Aurtengoan bi jardunaldik osatuko dute txapelketa. Lehen egunean, martxoaren 6an, ostiralarekin, Olatzarren, Laskiren eta Tabernakuaren idipareek jokatu dute saioa. Ondoren, martxoaren 9an, astelehe-

nean, Iñaki Lopategiren, Bixkien eta Iñaki Oliden oriotarraren idi-pareen txanda izango da.

Txapelketan zehar, Aiako probalekuko 1.800 kiloko harriarekin lan egin beharko dute idiek, 200 kiloko gainzamaekin.

Aiako Idi Probak Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak kontrolatuko ditu. ■





Hau Hotza!

Pelloziriren lagunak jantzi mordo bat jarriko du soinean, kalera ateratzeko. Zer da justuki, jantziko duena? Aukeratu dituen jantziak eta osagarriak biribildu itzazu, ondoko orrialdean ageri den gisan agertu dadin.



otsaileko Sudokua

Osa ezazu sudokua, OTSAIL hitza osatzen duten hizkiak (O, T, S, A, I eta L) ipiniz. Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



itzala

Zein da gure rock and roll zalearen itzal zuzena?



Hamaika

...Bai, arrazoi duzue. Eskolako bazkaria ez da beti gustukoena izaten. Alde ederrekoak izaten dira amatxiren kroketak! Baina ahaztu hori, eta bila itzazu bi irudi hauen artean dauden hamaika ezberdintasunak.




Badakizu
zer dioen esaera zaharrak?

Otsaila bero, Negua gero

Graffiti

Imajina
ezazu
ondoko
hau zure
eskolako
pareta
dela. Egin
ezazu
graffiti
lotsagabe
samar
bat. Edo
nahiago
baduzu,
aldarrikatu
ezazu
zerbait,
idatziz.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

AGENDA

AIA

OTSAILAK 29 LARUNBATA

Kontzertua: Mikel Markez.
Aiako probalekuan, 22:30ean.

MARTXOAK 1 IGANDEA

IX. Aiako Mendi Lasterketa.
Aiako plazatik abiatuta, 10:30ean.

MARTXOAK 6 ETA 9

XIII: Aiako Kintopeko Idi Probak.
Aiako probalekuan, 22:00etan.

MARTXOAK 21 LARUNBATA

XIII. Andatza-Aia Auto Igoera.

MARTXOAK 28 LARUNBATA

Ikuskizuna: Julen Alonsoren *Sutan dantzan.*
Aiako probalekuan 22:30ean.

ORIO

MARTXOAK 1 IGANDEA

Familia plana, Zingira Eskolak antolatuta. Herri bazkaria izango da.
Etzeluze gaztetxean, eguerdian.
Skate erakustaldia. *16:30ean.*
Kontzertuak. *18:00etatik aurrera*

MARTXOAK 7 LARUNBATA

Emakumeen manifestazioa *Kaleak eta gauak gureak dira!* lelopean batukadarekin.
Gau erdian.

MARTXOAK 8 IGANDEA.

Emakumeen Nazioarteko Eguna

Txokolate banaketa.
Aritzaga kalearen eta Herriko enparantzaren bidegurutzean, 09:30ean.

Zumba feminista kalean.

Aritzaga kalearen eta Herriko enparantzaren bidegurutzean, 10:00etan.

Hitzordua: Manifestaziorako materiala sortzeko.

Ibai Ondo plazan, eta euria eginez gero frontoian, 11:30ean.

Manifestazio zaratatsu mixtoa

Antolatu indarrak, batu borroka feministara! lelopean.
Ibai Ondotik irtingo da eta Kale Nagusiko aldapan amaituko da, 13:00etan.

Emakumeon* bazkari

autogestionatua. Bazkal ondoren

mikro irekia eta karaokea egongo dira.

Gaztetxean, 14:30ean.



MARTXOAK 13 OSTIRALA

Antzerkia: *Evaren alabak.*
Kultur etxean, 22:00etan.

MARTXOAK 24 ASTEARTEA

Irakurketa: *Guztiok izan beharko genuke feministak,* Chimamanda Ngozi Adichieren manifestua landuko dute. Ahduntze Eskolak antolatuta.
Kultur etxean, 18:30ean.

MARTXOAK 29 IGANDEA

Orioko Mendi Lasterketa, Orioko Herri Ikastolak antolatuta.
Ikastola aurrean, 09:30ean.

MARTXOAK 31 ASTEARTEA

Hitzaldia: *Zaintzaren esklabo,* Malen Etxeako Silvia Carrizok.
Salatxo aretoan, 18:30ean.



IRAGARKI SAILKATUAK

GALDUTAKOAK

Argazki kamera digitala galdu dut. Kamera poltsa gris eta zuri baten barruan zegoen. Modeloa Sony Cyber-shot DSC-RX100M3, beltza. Serie zenbakia S01-30838664-I. Oso argazki garrantzitsuak ditu. andreas.schwarz@gmx.bix. Tel.: 688 85 96 82

ALOKAIRUA

Logela alokagai. Etxebizitza berria eta logela handia, ohe handiarekin, mahaiarekin eta armairuarekin. Etxeak 30 metroko terraza du. Tel.: 652 55 15 50.

LAN BILA

Asteburueta eta jai egunetan lan egiteko prest. Paperak eta gomendio orriekin. Patricia. Tel.: 674 12 32 93.

Ume zaintzan zein etxeko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tel.: 638 73 05 44.

Neska bat lan bila. Etxeko lanak, umeen zein adinako zaintza, garbiketa lanak, asteburueta zein aste tartean; baita orduka ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel.: 661 13 32 95.

Neska euskalduna, haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa zaintza, garbiketa lanak, asteburueta emateko prest. Lehen hezkuntza graduatua. Umeekin esperientzia handikoa. Tel.: 636 31 22 31.

Neska lan bila. Barnezaintzaile, garbiketa lanak eta zaintza. Esperientziaduna, Orion bizi naiz. Marlin. Tel.: 632 58 23 65.

Ume zaintzan lan egiteko prest dagoen neska oriotarra naiz. Tel.: 676 44 13 27.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel.: 642 69 60 38.

Emakume venezuelar bat bere zerbitzuak eskaintzeko prest. Jende helduarekin ospitalean egoteko prest, egunez eta gauzez. Tel.: 688 61 04 52

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel.: 641 44 60 70.

Lan bila nabil etxe garbiketara eta haurrak zein helduak zaintzeko. Orduka lan egiteko. Tel.: 643 66 23 89.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel.: 631 82 44 52.

Neska arduratsua lan bila dabil. Barneko zein kanpoko langile bezala adineko pertsonak zaintzeko edo

etxeko lanak egiteko prest. Karlene. Tel.: 631 87 86 59.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jarzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 602 08 98 86.

Etxeko eta zaintza lanak egiteko prest nago. Esperientzia dut eta arduratsua naiz. Lanerako gogoz nago. Wendy Tel.: 612 46 42 43.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samantha. Tel.: 643 85 78 54.

LAN ESKAINTZA

Langile baten bila gabilta pertsona heldu baten zaintza eta etxeko lanak egiteko. Derrigorrezkoa da gidatzeko baimena eta paperak edukitzea. Tel.: 656 73 55 19.

Urdaira sagardotegin txotx sasoiari lanerako jendea behar dugu. Urtarrilaren 11n hasi eta maiatzaren 10era izango litzateke.

Zarauzko Iruña tabernan, urte osorako, zerbitzaria behar dugu. Interesatuok deitu mugikor zenbakira. Tel.: 656 75 04 89.

ETXE BILA

Familia bat gara. Hiru gela dituen etxe baten bila gabilta. Tel.: 661 33 11 13.

Neska oriotar bat etxea alokatu nahian. Tel.: 677 28 95 21.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ordaindua du. 3.500 euro. Tel.: 657 77 45 11.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel.: 623 17 95 37.

Garaje itxi bat erosi nahiko nuke kotxe bat sartzeko tokiarekin. Herri erdialdean edo goiko kalean. Tel.: 666 18 41 69.

Portugeseko ahozko mintza praktika hartu nahiko nuke ingelesaren edo euskararen truke. Tel.: 691 34 48 56.

ITSASO

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	08:14 eta 20:30	02:01 eta 14:20	☉
2	09:01 eta 21:26	02:45 eta 15:09	☉
3	10:08 eta 22:46	03:45 eta 16:15	☉
4	11:40	05:08 eta 17:44	☉
5	00:18 eta 13:06	06:38 eta 19:06	☉
6	01:31 eta 14:09	07:48 eta 20:07	☉
7	02:28 eta 15:00	08:42 eta 20:57	☉
8	03:16 eta 15:45	09:29 eta 21:42	☉
9	04:01 eta 16:28	10:13 eta 22:26	☉
10	04:45 eta 17:10	10:56 eta 23:09	☉
11	05:28 eta 17:53	11:38 eta 23:53	☉
12	06:12 eta 18:35	12:21	☉
13	06:57 eta 19:19	00:37 eta 13:05	☉
14	07:44 eta 20:07	01:23 eta 13:51	☉
15	08:36 eta 21:03	02:13 eta 14:42	☉
16	09:39 eta 22:14	03:11 eta 15:44	☉
17	11:07 eta 23:44	04:25 eta 17:07	☉
18	12:45	05:57 eta 18:38	☉
19	01:07 eta 13:57	07:21 eta 19:47	☉
20	02:09 eta 14:47	08:20 eta 20:37	☉
21	02:55 eta 15:25	09:04 eta 21:17	☉
22	03:32 eta 15:56	09:39 eta 21:52	☉
23	04:05 eta 16:25	10:11 eta 22:54	☉
24	04:35 eta 16:51	10:41 eta 22:54	☉
25	05:04 eta 17:18	11:10 eta 23:24	☉
26	05:33 eta 17:45	11:38 eta 23:53	☉
27	06:02 eta 18:13	12:06	☉
28	06:32 eta 18:42	00:22 eta 12:36	☉
29	08:05 eta 20:16	01:54 eta 14:08	☉
30	08:42 eta 20:55	02:30 eta 14:45	☉
31	09:28 eta 21:48	03:14 eta 15:32	☉

FARMAZIAK-MARTXOA

ORIO

2, 4, 13, 17, 27 eta 31. LASA: Herriko plaza / 943-83 09 36

ZARAUTZ

20.	ETXEERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
10, 16 eta 26.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
1, 21 eta 22.	GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19
11, 14, 15 eta 23.	GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
3 eta 9.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarbo Enea / 943-13 29 70
7, 8 eta 25.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
6, 18, 24 eta 30.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
5, 28 eta 29.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
12 eta 18.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94



Puntua jarrita

Juan Antonio Erkizia.
(Doinua: balearen bertsoak)

1

Azken urte hauetan Zenbat gorabehera

Proiektu tinko batez
eginez aurrera
Mimoz lan egitea
gure izaera
Ho(rre)la iritsi gera
zuen bihotzera

2

Hamar urte inguru
garaipenen bila
Hiru entrenadore
arraunlari pila
Orain arte eginez
lan gogor ixila
aurten egina degu
urte borobila

3

Liga ta Kontxarekin
hori arrakasta
Oriora ekarriz
bandera ta asta
hainbat urte atzetik
eta aurten zasta
Berriz nabarmendu da
Orioren kasta

4

Bikaina dago
zer kategoria
Harro defenditu det
kolore horia
Beteranak direnei
juntatuz berr Talde ia
luzerako daukagu
gure harrobia

5

Bederatzi urtean
hara ta honera
eskerrik asko batez
noa egitera
Nahiz pena badaukadan
banoa uztera
Lortu nahiean nere
etxeko bandera.

Hurrengo bertsolaria:

Andoni Campos.

Puntua:

Negua pasatzen (e)ta
badator udara.

Hasi Bertsoan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Juan Antonio Erkiziari jarri dio puntua Txomin Eizagirrek: "Azken urte hauetan zenbat gorabehera". Hurrengoari ere jarri dio puntua.



Saioa Perona Balda

Inauteriak

2020 Orion

SARIAK:



BANAKAKO IRABAZLEAK:
Hippie eta
Cruella de Vil

TALDEKAKO IRABAZLEAK:
Tokio 2020 joku olinpikoak eta monigoteak



SARI
BEREZIA:
Google Maps

